

1  
18

PANAMA  
NEWSPAPER

WEEKLY

1883

1883

1883

1883

1883

1883

1883

1883

1883

1883

1883

1883


1883

1883



Esnaal  
10.000

JESUCRISTO JAUNAREN LEGUE SANTIA



N.º 2822

R. 34764

JESUCRISTO JAUNAREN

LEGUE SANTIA


Domingo de Canala Echevarria ganic


Vitorijaco Obispo Jaunaren baimenagaz

1892 garrenius




GUERNIQUEN:  
ANTONIO EGURROLAREN SULOTEGUIYAN  
1893 GARRENEN, URTIAN









Jesus maitia dago  
Curutzian josirie,  
Pecatarijac gana  
Erruquiz beteric.

JESUCRISTO JAUNAREN

LEGUE SANTIA

1.

Salbeu gura badozu  
Ceure arimia  
Jarraitu zucn beti  
Cristoren leguia.

2.

Ezdau beste biderie  
Cerura juateco;  
Beste guztijac dira  
Arimac galtzeeco.

**Asiera, edo berba aurrecua**

Neure iracurla euscaldun maitiac: jazo darua inos irunsi biar izatia batec, irunsi biar ez leuquezan gauzac. Entzun deutseet beifi baño guei-jagotan euscal-errijan jaijo dirian personari, gue-

urē eusquera maitia berba-cuntza pobria dala. ¿Cer derichezue euscaldun maitiac esate oneri? Entzun izan banentze au Erbestetaar eusquera ez-eguijonai, ez-eustan batbere penarie emongo; baña entzutia euscaldun baten egotie eusqueria berba-cuntza pobria dala, onec emon leiyo euscaldun bateri pena eta larritasun andija.

Eusqueria, berba-cuntza pobria dala: orrela berba eguiten dabeen euscaldunai, itandu biar deutseet; ¿iracurri dozuez Olaechea Jaunac, Astarioa Jaunac, eta beste euscaldun jaquitun ascoc eusquera escribidu citubezan liburubac? ¿Iracurri dozuez Marquinaco seme D. Juan Antonio de Moguel Jaunac euscaldun andijac eusquera escribidu cituzan liburubac eta euren artian Baserritaar jaquitunaren echeco Escolia ta Peru Abarca izena daruana? Iracurri badozuez liburu onece. ¿Celan diñozue eusqueria berba-cuntza pobria dala? Eta iracurri ezpadozuez ¿celan berba eguiten dozue guisa edo modu orretan ez-daquizuen gauza baten ganian? Azquenez; ¿iracurri dozue eusquerasco Dicionarijo edo berbeen aurquibideco liburuba? Bada iracurri badozue ¿celan diñozue eusqueria berba-cuntza pobria dala? Eta iracurri ezpadozue ¿cergaitie berba eguiñ guisa orretan? ¿Ez-daigun bada berba eguiñ, ondo ez-daigun gauza baten ganiari bestelan sarri erratueo dogu.

Esaten badozue liburuchu onen eusqueria guztiz pobria dala, esango deutsuet errazoia dauca-

zuela; baña ez emendie atera, eusqueria berba-  
cuntza pobria dala.

Euscaldunac: imifico nituquez nie liburuchu  
onetan berba asco, eusquera garbijan; baña uste  
dot iracurla erdijac ez-leuqueezala aituco; ¿er  
diñot nie erdijac? Ezda laurenac bere. Orregaitie  
bada escribidu gura dot liburuchu au, Bizcaitar  
guztijac edo gueijeñac aituco dabeen moduan.

Icusi daigun oraiñ céc imifí nenduban escri-  
bitzen, liburuchu au.

Guerniqueco Ibarrian (1) (1884 garren urtian)  
Canala idigui biar zala asmua artu zanian, imifí  
neutsezan oneri berso batzue azquenenguae esa-  
ten ebala. Guerniquen izangogu—Erbeste gentia,  
—Ez orregaitie galdu—Cristoren leguia. Berso  
onec ecarti custazan milla gauza burura, ta emen-  
die oña artu-da, otu jatan cerbait esan biar neba-  
la Jaungoicoaren gracijagaz, guere erreligiño  
santiaren gañian: ez lendie ez-dagozalaco escribi-  
duta eusquerazco liburu edeertac, Jesucristo Jau-  
naren doctrina santiaren gañian. Baña esan lei  
que euscaldun guztijac edo gueijeñac dagozala  
euracaz aztuta ez-daquit nie cergaitie.

¡O cristinauac! icusirie aiñ gogo guichi cristi-  
ñau ascoren artian erreligiñoaco liburubac iracur-  
teco, esan leique diñuela ez dagoala erreligiñoian  
biar izanie. ¿Cerdá au cristinauc? Guztijoc biur-  
tu gara santuac ezetan bere Jaungoicoa iramdu

(1) Aitu bedi Guernique Lamon.

edo ofendiduten ez dogun moduan? Edo gustu dogu paradieuan gagozula santu batzue eguñic Adan eta Eba pecatuan jausi baño lenago egon cirian moduan? ¡A cristiñauael orrela balitzate bere edo santuac languac baguñia beré, beti euquico guennque erreligiñoian biar izana.

I.

## Ez orregaitic galdu, Cristoren leguia

Guernicar mañiac: icusi dozue cer diñuan Canalaren azquenengo bersuac. Orregaitic bada, idiguiten bada Canala Guernicaco Ibarrian Guernique izan leiteque demporiagaz erri andi bat, eta etorri leitequez bici izaten Erbestetarrac, eta benturaz oneen artian (Jaungoicoac ez deijela gura) gueure erreligiño santiaren arerijuac: agaitic diño; ez orregaitic galdu, Cristoren leguia. ¡Ez Guernicar mañiac! ez-daigun galdu secula ez guo ez surretantzecuac, Cristoren legue santia; cergaitic au galtzeen badogu, galduco diru beticogure arimac Jesucristo Jaunac esan da daucan moduan. Emen esango dau benturaz bat edo bestec; baña..... ¿cer dauco cer icusi Canalac erreligiñoigaz? Asco dauco cer icusi; eta ori ¿cergaitic? Cergaitic gauza bat eguñ-da ez dagoan

icusten ez dirian gauzac, icusten dirialaco eguñ-  
da guero: orregaitic bada erreligiñoia dan leguez  
gure arimeen jagolis, dauco cer icusi onci jua-  
queen gauza guztijetan ez dabelaco gura bat gal-  
du doitian: orretaraco jatsi zan Jesucristo Jauna  
cerutic lurrera. Eu qui daigun au beti gueure  
goguan.

Jazoten dira sarri mundu onetan, batec uste  
ez dituzan gauzac. Uste neban nic beste Guerni-  
car guztijac leguez, aimbat lasterren idiguico zala  
erri onetaco Ibarrian Canala; baña asmu au artu  
ebana (D. Angel Allende Salazar Jaungoicoac  
bere glorijan cuqui deijela) Jaungoicoac cruau  
eban mundu onetarie, usteric guichijen guendua-  
nian: eta badaquize onelango gauza bat jazoten  
danian, (orrela gura izan eban Jaungoicoac) aim  
bat lasterren eguñgo diriala uste dirian gauzac  
izaten dabena atzera-cuntzia: baña ezda galdu  
guztiz idiguico dan icharopen edo esperantzia.  
Orregaitic bada, jazotzen bada iñoseo demporan  
Canalau idiguitia, ez daigun galdu esan dodan  
leguez Cristoren leguia, eta bai gorde gueure ari-  
mac bere escuetan imiñi arte. Alan izan dedilla.

## II.

### Jesucristo Jaunaren erreligiño santia

Jesucristo Jaunaren erreligiño santiari ucatu

deutsedan ezquero, pentsaudot cerbait esatia Jaungoicoaren gracijagaz bere gaffian; eta au izango da esaten dan leguez, asal asaletic.

¡Neure Jesus maitial emoidazu ceure gracia liburuchu onetan esaten nuan gauzan izan daitezcan sutuco ditubezanac cristinauen biotzac ceu ganaco amodijuan; onetaraco imifiten deutsut bitarteco ceure Ama Birginta Marija, daquidalaco ucatuco ez deutzazuna escatuten deutsudan gracia. Bada ondo daquizu izango dala ceure ondra ta alabantzaraco, eta arima guztiheen oneraco.

### III.

## **Jaungoicoac bota eban Lucifer infernura**

¿Cergaitic Jaungoicoac bota cituzan Lucifer eta oneri jarraitu eutseen aingueruac infernura? Luciferrec Jaungoicoaren beste izan gura ebala-co; auda egui bat, mundu gustijac daquijena; guero esan gura dan cé Jaungoicoaren beste ecin izan leiqueela besteric. Orreguitic bada, badago ifior bere beste izan gura dabenic; jazoco jaco Luciferrari jazo jacana.

Emen esango dan benturaz bat edo bestec; bada ecin egon haleiteque Jaungoico eguijazco bacar bat buño besteric. ¿celan izan zan Jesucristo

ren Apostolu eta Ebangelista santuac, Jaungoico eguijazco bacar baten sinisqueria euqueenac, eta ezetan bere euren Aita Jaungoico maitia iraundu edo ofendidu gura ez-ebenac. Jesucristo Jaungoicotzat artutia? Icusi ebelaco Jaungoicoac munduari edo munduturrai eguiñdu eutseen Salbaguillia Jesucristo Jauna zala: eta ori ¿cergaitie? Berac eguiñ cituzan millagro ta gauza mirarigarriac icusija gaitie, eta bere doctrina cerucoac gaitie; ceñehuc dirian bacarric, gure arimaç salbeuco ditubezanac. Iensiric bada, Jesucristo Jaunaren arerijuac dabiltzala bere erreligiño santia zapaldu edo illundu gurarie, eta berari Jaungoicotasuna quendu gurarie, pentsau dot mundu guztijari emotia bere Jaungoicotasunan eracutisija; eta ez dagoala beste erreligiño eguijazco-ric, berac cerutic ecarri euscuna baño.

#### IV.

### **Jaungoicoac eguiñdu eutsan munduari Erredentore bat.**

Sinistuco espagueunque Jesucristo Jauna dala Jaungoicoac munduari aguiñdu eutsan Erredentoria; eta sinistuco espagueunque orreisze-gaitie Jesucristogan Jaungoitasuna, iraunduco guenducque cein gucijauguan gneure Aita Jaungoicoa.



Eta ¿celan euquico ez dau Jesucristo Jaunac Jaungoicotasuna izanic Jaungoicoaren seme baccarra, Aita ganic sortua ta ez eguifia, eta beragaz izate edo sustancija batecua? Orregaitie bada ecin imifia guifiaique puscachu baten bere dudan Jesucristoren Jaungoicotasuna, jausi gura ezpadogu pecatu mortal andijan.

Jesucristo Jaunagan Jaungoicotasuna icusi edo sinistu gura ez daben guizonac gaitie esan leiqua, burua galduta edo zoraututa dagozala; au da eguija. Eta ¿cergaitie da eguija? Cergaitie au ueatuteco edo Jesucristogan Jaungoicotasuna ez sinistuteco, leleengo guzurtu biar dabe Israelta- rren Istorija; (1) eta guzurtu biar ditubez Jaungoicoaren Profeta edo Igarla santuac aurretijaz gueure Sabalguilliaren gañian esan citubezan gauza guztijac; auda bada errazoiac diñuana.

Ondo equijeen Igarla santuac, nor izango zan munduco Salbaguillia; orregaitie eguieben aurretijaz bere pasino eta eriotziaren irudija Calbari- joco mendijan egon izan balira leguez, Judeguac curutzian ill eben egunian.

¿Nundie asiconaz orain zubei adietan edo eracutsija emoteco Jesucristo Jaunac daucan Jaungoicotasuna? Izango-da bere jaiotzeratic esaldi labur batzuetan.

¡O Jesus! haztana! arguitu eguizu nire adifia eta emoidazu ceure gracia, emon deidan len esan do- dan leguez ceure Jaungoicotasunaren eracutsija.

---

(1) Istorija da igaro dirian gauzen arguitazuna emotia.

V.

## Jesucristoren Jaungoicotasuna, Ume Jesusen jaiotzeria Belengo Portalian.

Jesus jaijo zan gaubian bihldu eutseen Jaungoicoac Belen inguruce artzain edo pastore batzui aifgueru bat arguitasunaz beteric, esaten eutseela. Alegrau zaiteze dacartzuedan barrijagaz; jaquiñ eguizne bada, celan jaijo dan ordu onetanche (gabeco amabijetan) Belengo portalian (1) Mesias edo munduco Salbagnuillia: zoaze topauco dozue, asca batian.

Sinisturie artzainac fede bici batgaz aifgueruae esan eutseena, juan eirian beriala Belenera, ta topau eben ume Jaungoicoa ascan eguala otzen icaraz. Adorau eben unilltasun eta errespeto andijagaz, ta juan eirian ceruco gracijaz beteric euren artaldra, edo errebañuetara esaten ebela pozez beteric, cer icusi eben.

Cauza ciurtzat dago aifguerua egoanian artzanai adietan emoten Jesusen jaiotzeria, ordu atan aguertu zala Arabija aldiari izar millagrozeo bat arguitasun andijagaz; eta izar onegaz emon eutseen Jaungoicoac adietan iru Erroguo Magoai, celan egon jaijorie Munduco Salbagnuillia.

(1) Abernac edo gnaduaac gordetan citubezaa locua.

Erregue santu onece cirian guizon jaquitun, eta izar igarلاع; ta euque ezan iracurrita Jesusen jaiotzeraco profecijac esaten ebela celan jaijoco zan Belenen Mesias edo munduco Erredentoria, aisi demporatan guichi gora bera.

Erreligiñoian, iru Erreguiac cirian Gentill edo Paganoac; (Jaungoico falsuac adoretan ditubezanna) baña Jaungoicoac ucutu eutseen irurai bere gracijagaz euren biotzetan, eta emon eutseen adietan juan leitezala Belenera batbere demporac goldu baga Jesus adoretan, izar barrijac eruaten citubezan lecura. Ezetarico dudac baga artu eben beriala Belenera bidia izar-aren laguntasunagaz, Jesus jaijo barrijaren billa.

Amabi egun eta puscabat gueijauguan eldu cirian Belenera eta emon gueratu zan izarra Jesus jaijoric egoan portaliaren gafian. ¡O cristianuac! ecin esan leique iru Erregue santuac artu eben poza icusirie gueratuta eurari lagundu eutseen izarra portale zorioneco onen gafian; ceñetan sartu cirian fedez beteric barrura, ta topau eben eurac billa ebiltzana bere Ama Birgina Marrijaren beso ederretan.

Portale edo eche pobre onetan (echia deitu albaleijo) ez eben icusi iru Erreguiac batbere anditasunic, ez ume Jesusec eucan beste umiac ganic desbardintasunic; baña Jaungoicoac emon eutseen arguilasun edo gracijagaz, aitu eben an egoala ume Jaungoicoa guizon eguñic.

Fede eta errespetus beteric jari cirian belauñi-

co Erregue santuac, Jesusen onetan; eta iminiric bere aurrian eruban eutseezan erregaluac, (incensua, urria, ta mirra preciosua) adorau eben ceru eta lurreco Jaun, ta guizonen Salbaguilla moduan.

Esan eguidazue orain cristian eta cristian etzarenac; zatorrico cirian iru Erregue Magnac Arabijatic Belenera amabi egun ta gueijauco bidian Jaungoicoac emon ezpalcutze eracutsija celan Belenen egoac jaijoric munduco Salbaguilla? Ez; cergaitic Jaungoicoaren gracija ez dabilen lecuac icusten ez dalaco olango gauza mirarigarric. Emen daucagu bada dudarie baga, artzainac eta Erregue Magnac emon eben eracutsija Jesucristoren Jaungoicotasunagan.

## VI.

### Jesucristoren Jaungoicotasuna

#### Ume Jesus galdu, ta templuan topauta.

Birginea Marija munduan bici zan demporan eguiten citubezan urte guztijetan Jerusalengo templu santuan Pasco jaijac, zortzi egunian. Jai onetara joian Nazaret aldetic eta beste lecu ascotarie, gente andija; eta juazan, orain peregrinacian jua ten dirian guisa edo moduan. Cu

rasoac eruaten citubezan jai oneetara euren umiac, amabi urtera elduten cirianian. (1)

Hebreoac jai oneetara juan etorrijan, euqueen oitura edo izcune bat: guizonac juaten cirian alcarregaz, eta emacumiac bardiñ; baña alcar icusten etziriala; umiac nai ebenacaz; au da; senide edo ezagunacaz: modu onetan elduten cirian guztijac Jerusalenera. Orregaitic bada, au onela izanic gurasoac ez eben artuten umieen ardudarie; bada bequijeen. Aitacaz ezpazan, Amacaz juzazana; ezpada senide edo adisquiden batzueaz.

Jerusalengo Pasco jaijetara juzanac elduten cirianian Ciudade edo erri nagosi onetara, famijaco burnac erosten eben emen bildots bana ceñeri esaten eutseen Pasco bildotsa; eta jaten eben au (beste gauza batzuben artian) leguac aguiñduten eutseen moduan.

Birgiña Marija ta san José gloriosua juaten cirian urte guztijetan umen Jesusgaz Jerusalenera, Pasco jaijac Ospetan cirianian; eta amabi urtera eldu zanian Jesus, jazo jaqueen onegaz bere gurosoai iños jazo ez-jaqueena.

Juan cirian Jerusalengo Pasco jaijetara beste urteetan leguez gente ascoren artian, (2) eta jai oneen azqueneco egunian, juan zan gentia beste egunetan leguez templura; eta eguñic Jaungoicoari euren oraciño ta esquiñtzac, urten eban

(1) Hebreoac: euqueen obligaciõta amabi urte bete ezquero, gordaco legue guztija.

(2) Onduan joian Jesus Pascoagaz omphetara, beste guztijan leguez.

gentiac templitic, ta jazo zan gauza misteriosu bat. Jesusce ichi cituzan bere gurosoac, aldendu zan gente artetic, ta gueratu zan Jerusalengo Ciudadian.

Itioc ez-equijan leguez cer igaroten zan Jesusgaz, asi zan Nazaret-aldeco gentia alcarregana batzeen; eta guztijac batu cirianian, artu eben Nazaretera bidia. (Esan dot cer modutan juaten cirian bidian).

Egun atan ibiltaldi andijac eguiñ da, alcartu cirian illuntzian guizon eta emacume guztijac bidian topau eben erri baten; baña ¡O batzar triste ta negar garrizcua José ta Marijarentzat! Joséc icusi eban Marija, baña ez beragaz bere seme ordia: Marijac icusi eban José baña ez beragaz bere semia. Au icusiric eldu zan Marija José gana, ta esan eutsan eztutasun andijagaz; ¡José! ¿Nunda nire semia? Joséc erantzun eutsan; ezda nigaz etorri; bada nigaz bere ez dirautso Birgíña Marijac. Emen izan zan bada bijeen larritasuna.

¡O Jesus maitial! ¿Cergaitic igaro eraguiñ ceuntseen aimbeste pena ta eztutasun ceure guraso onai? Baña... ¿cernago ni esaten? «Parca escatuten deutsut Jauna: bada eguiñ deutsudan itauna izan da icusiric ceure guraso maitiac aín eztutasun andijan emon cenduezalaco galdutzat eurac ganic alde eguiñ cenduban eguneco illuntzian.

Icusiric bada José ta Marijac Jesus etzana

juan batagaz ez bestigaz, asi cirian bere billa gente artian baña Jesus etzan aguari: itandu eutseen senide ta adisquidiai icusi beeben Jesus, eta guztijac erantzun eutseen ezetz. Orra bada celango estadu negargarrizcuan aurquitu cirian Jesusen gurasoac. Azquenez; icusirie Jesus etzana aguari, juan cirian Ostatura pentsamentu tristetzeric.

¡Cristiñauac! pentsau daigun celango gau triste ta larrija igaroco eben Jesusen gurasoac euren seme maitiaren faltigaz.

¡O Birgíña Marija ta san José gloriosual! ¿Celan ill etzenduezan gau atan aña pena andijac? Ezdaquit; baña uste dot ceuben seme Jesusec gorde eutsuezala ceuben bici preciosuac, millagro boten bitartez; bestelan ecin izan ceiquian.

Urrengo egunian urten eben José ta Marijac egun sentijan ostatutic, eta artu eben Jerusalemgo bidia euren semiaren billa. Bidian aratu citubezan inñuru guztijac; eltzeen cirian erri guztijetan, ebiltzan batic bestera; eta inñor icusten beeben bidian, itantzen eutseen icusi badabe aña modutaco ume bat: baña batec bere ez-eutseen emoten Jesuseu errazoiric. Modu onetan eldu cirian Jerusalemenera, Jesus galdutzat emon ebenic iru-garren egunian.

Beñ baten Jerusalemen lelcengo emon eguibena izan zan, juan euren adisquideen echeetara, Jesusen barriric emoten beutseen; baña batec bere ez-equijan bere barriric. Aratu eben erri

guztija bafia alperrie; eztan Jesus aguri: azque-  
nez juañ cirian templura, eta emen izan cirian  
José ta Marijaren poz atseguñiac. ¡Bai guraso la-  
rritu eta necatuac! errazoia ceunqueen poztuagaz:  
templu onetan egoan ceubec billa cenbilzeen se-  
me maitia.

José eta Marija templuan sartu cirianian, icusi  
eben ume bat legueco Doctore jaquituneen erdi-  
jan jarrita egoala; (cein ezagutu eben euren se-  
me Jesus zala) eta egoan euracaz disputan, ceru-  
co doctrineen gañian. (1)

Jesusen doctriñac aifñ cirian argui ta ederrac  
cé Doctore guztijac egozan icaratu eta mirarituta  
cér erantzun Jesusi ez-eguijeela. (Orregaitic esa-  
ten da Jesus iracasten templuan Doctorial.)

Jesus egoñian templuan legueco Doctoriacaz  
disputan, egoan gente andija eurari entzuten; eta  
oneen arteco batzuc esaten eben, Jesus gaitic;  
ume ori dá aifñgueruen bat, edo dá Daniel: aifñ  
egozan bada mirarituta bere doctriña ta jaquitu-  
rijagaz.

Orra bada celan Jesusec emon eban templu  
santuan bere jaquiturijaren eracutsija, amabi ur-  
te bacarric euguezala. Emen esango dan bentu-  
raz bat edo bestec; eta... ¿cergaitic emon ez eut-  
seen Doctorial bere Jaungoicotasunan eracutsija  
millagro baten bitartez? Etzalaco eldu orretaraco  
ondiño, bere ordua.

Ieusiric Birgifiñ Marijac legueco jaquitunacaz

---

(1) Doctore onec egozan erracuntza andijetan, legularen gañian.



egoan umia Jesus zala, juan zan Josegaz curac egozan aldera; ta urreraturic bere seme Jesus gana, esan outsan penaz beteric bafia amodijo andijagaz; ¡Neure seme maitia! ¿Cergaitic aldendu cifiñan gunanic? ¿Cergaitic ichi gueduzuzan bcartade onetan? Ara bada emen zure Aita eta ni zure billa larritasun andijenian. Jesusec erantzun eutsan; bada ¿ez-cenquijan neure Aita beticoari gloriya emon biar neutsana?

¡O neure Jesus onal aldendu cifiñanian ceure guraso maitiac ganic igaro eraguñ baceuntseen pena eta larritasun andija, orañ ceu topauagaz emon deutzazuen poz atseguña neure ustez andijaua dala. Orra bada celan Jesusec poztuten dituzan bere billa dabilzanac.

Batu zan Jesus bere guraso onacaz, ta artu eben beriala Nazaretera bidia, ta eldu cirian, echera bidian gauza charric jazo baga. Aurre-rantzian jarraitu eban Jesusec bere gurasoen alboan, ogueta-amar urte cituzan arte: eta bitarte onetan lagundu eutsan bere Aita ordiari arotzijan. Guero ogueta-amar urte bete cituzanian, aguertu zan munduan iracasten guizonai bere doctrina cerucoa.

---

VII.

**Jesucristoren Jaungoicotasuna  
Canango esteguac.**

Cana erichon erri baten (Galilean) Ospatu edo Celebran cirian Birgiña Marijaren senide pobre batzuen estegu edo bodac, ceñchubec ezagutu-ten dirian Canango bodeen izenagaz. Estegu oneetan aurkitu cirian escon-barrillac conbidautā, Jesus, bere Ama santia, eta Jesusen lau Apostolu: Pedro, Andres, Felipe, ta Nataniel; laurac arraiñzaliac. (1)

Esan dot celan escon-barrillac cirian pobriac; baña euqueezan leguez senide ta adisquide asco, batu jaqueen estegüen janeraco curac uste eben baña gente gueijago; eta orregaitic jazo jaqueen ardanagaz, laster icusico doguna.

Jan lecuā euqueezan sei Anfora edo ur ontzi arrizcuac, ceñchubec betetan citubezan uraz; eta jaten asi baña lenago garbituten citubezan ofiac ta escuac ucondotie atzamar punteetara arte: baita bere garbituten citubezan baso odatecuac cuchillo edo cañubetac, eta mairaco biar citubezan

(1) Uste da ilizala san José estegu oneec Ospatu baña lenago; bada Ebangelistac ez dabe nitetulen ez esteguetan, ez curac amaituta guera.

beste gauzac. Garbitasun onei esaten eutseen purificaciñoia. (1)

Jat ordua eldu zanian, jarri zan gentia maira ta asi cirian jaten; eta janen erdijan egozala, amaitu jaqueen guztiz ardaa. Orduan escos-barrjac beguiratu eutsecu ezlutasunaz beteric Birgiña Marijari, ta emon eutseen adietan ardaa amaitu jaqueela. Ieusirie gueuro Ama erruquior Birgiña Marijac ardaa amaitu jaqueela, artu eutseen erruqui andija lotsaz gueratu ez leitezan. Orregaitic bada, Birgiña Marijac ceruac esan izan baleutsa leguez, biurtu eban burua Jesus gana ta esan eutsazan berba onecc edo erregu misteriosu au; ez dauquee ardauric.

Ondo equijen Jesusec cer esan gura eutsan bere Ama maitiac, berba arecaz: baña alan da guzti bere erantzun eutsan: ¿cer deusec ardura ez zuri ez niri andria? ¿Uste aldozu ez daquidala eelango premiñan aurquituten dirian aifñ erruqui dozuzanac? Edo ¿ez dodala ezagututen daucazun desina millagro bat eguiñ deidan euren ezlutasuneric aterateco? Baña ceuc daquizu nire ordua eldu ezdana ondiño: onegaz esan gura eutsan Jesusec bere Amari, etzala eldu bere ordua millagruac eguiteco. Orduan esan eutseen Birgiña Marijac oteñai; eguizuo Jesusen aguiñdua.

Egozan esan dodan leguez jan tecuan sei uroutzi arrizeuac, eta Jesusec aguiñdu eutseen ot-

(1) Ezleguetaco egunetan ez ceitubezan eguiñ garbitasun onecc, gente neco egoulaco.

senai bete leijeezala seirac uraz, ta ondo beteric egozarian atera leijeela barruan euqueena eta cruan leijeela maira; beriala eguieben otseñac Jesusen aguiñdua; eta..... ¡O gauza mirarigarrijal icusiric janian egozan guztijac ura ardan ederrian biurtuta, gueratu cirian millagro onegaz guztiz mirriatuta. Au izan zan leleengoco millagrua Jesusec eguiebana, eta berau bere Amaren erreguz.

Orra bada cristiñauac nundic atera biar dogun ecimbat balijo dabeen Birgiña Marijaren erreguac bere seme Jesus ganaco. Amac dirautso, ez dauquee ardauric; eta semiac erautzuten deutso, ez dala eldu ondifo bere ordus: bañia añ eutsan bere Amari amodijo andija cé ecin ucatu izan eutsan, ta eguieban millagrua. Beguira bada nún emon eban Jesusec bere Jaungoicotasunan eracutsija.

Cristiñauac: eldu gaitian bada gú bere Jesus ona gana gueure premina gustijetan Birgiña Marijaren bitartez, eta ciur izango-da ucatuco ez deutsana gú gaitic escatuten deutsana, meresidu badogu.

## VIII.

### Jesucristoren Jaungoicotasuna Jesus Calbarijoco bidian, ta Beronica santia.

Jesus eroienian Judegu deungac Calbarijoco

mendira curutzian iltera, seigarren egotaldi edo estacinoian icusi eban Beronica santia; eta icusirie munduco Salbaguilliaren arpeguija echurarie бага chistuz, odolez, ta autsaz betoric, sartu zan borerreruen artetic eta iru itzulico zapi zuri bategaz garbitu eutsan arpeguija. ¡O emacume zorioneco ta bildur baguia! ¿Celan icaratu etzen duezan borreru areen arpegui itzalac? ¡Al zulanguae balira cristiñau guztijac, beti cuquico leuque garbi bere arpeguija gueurè Jesus laztanac; baña garbitu biarrian, sarri loituten deutsagu peatu deunguiagaz: eta esango dogu cristiñauac gariala. Ondo dago: eta cristiñauac bagara... ¿erregaitic izango ez gara Beronica santia languac? Orregaitic bada Beronica santia eguñ ceuntsan mesediaren saritzal ichi eutsun gueure Jesus onac arpeguija garbitu ceuntsan zapijaren itzuli bacoedian, bere arpegui ederraren irudija. (1)

¡Cristiñauac! emen daucagu nún icasi asco Beronica santia ganic. Beroniquiac garbitu eutsan arpeguija Jesucristo Jaunari bere pasino santian, euquelaco garbi bere arimia: orregaitic ichi eutsan Jesusec zapijaren itzuli bacoedian, bere arpeguijaren irudija. Orregaitic bada, badarabilguz gúe cristiñauoc bere gueure arimac garbi, emon go deusec Jesusec Beronica santiari emon eutsan leguez meresidu izango dogun sarija.

¡Guizon fede bacuac! esan eguidazue oraiti:

(1) Irudi oncoctarico bat (Jungokoaen arpeguija) beheratan da Erromaco san Pedraren Basilican. Beste bat, Jaengo eleissa santian. Eta beste bat Madrillen, Principe Pio Jaunaren Capilian.

eguiñgo eban Jesucristo Jaunac Jaungoicoa izan  
ezpazan seigarren egotaldijan eguieban gauza  
mirarigarrija edo millagrua? Ez. Ezda egon eta  
egongo bere ezda guizon utsic iru itzulitan da-  
goan zapi baten bere arpeguijaren irudija ichico  
dabenic, Jesucristo Jaunac ichi edo esarri eban  
moduan. (Jaungoicoa da bacarric millagruac egui-  
ten dituzana; eta sarri, bere santuen bitartez).  
Orregaitic bada, balego ondiño zuben artian inor  
Jesucristo Jaunagan Jaungoicotasuna sinistu gu-  
ra éz dabenic, itandu deijuela dempora baten  
bere arerijuac izan cirianai; san Pablo Aposto-  
luari, san Agustin andijari eta beste oneec lan-  
go ascori, ta eurac esango deutsee esan doda-  
na eguija bada edo éz. Ez uste izan bada, neu-  
rez nagoala berbetan. Azquenez; Jesucristo Jau-  
naren Jaungoicotasuna dá len esan-da daucadan  
leguez, fedeco gauza andijena. Orregaitic bada,  
au sinistu gura ez dabena ecin salbeu leiteque;  
alperric gomutaeco dau guizonac beste modutan.  
Eta... ¿egongo da ondiño guizonic Jesucristo  
Jaunaren Jaungoicotasuna sinistuco ez dabenic?

---

IX.

**Jesucristoren Jaungoicotasuna  
Jesus Joseric, curutzian.**

Eldu zan Jesus neque audijeen artian curutze astuna bere zorbalda gañian ebala, Calbarijoco mendira; erantzi eutseezan soñecua, ta ichi eben billos gorrijan gente guztijaren aurrian, guztiz lotsaturic: (1) eta imini eben Judegu borrarua curutzearen gañian cein echun zan bertan murte eguiñ baga, oque oder baten echun izan bazan leguez: eta onelan egoala josi eutseezan untze gogorraz bere osu ta oñ sagradua, eta imini eben santu guztijeen santua zana curutzian joseric cuqueezan lapur deunga bijan erdijan, euren nagosija izan bazan leguez. ¡O Jesus amodioso eta biotz samurra! ¿Celan laquetu edo consentidu cenduban orren beste ofentsa Judegu deungneen aldetic? ¡Cristiñau maitiac! ori guztijori laquetu eban gueure Jesus onac gueure pecatua gaitic, edo gure arimac salbetia gaitic. Beguira bada ceimbat gura dentseen Jesus maitiac gure arimai.

¿Cer da bada oraiñ escatuten deuscuna guri Jesucristo Jaunac curutze santian gú gaitic egui-

(1) Bere Ama larrituac estaldu entsan, gorputz alde bat.

eban sacrificijua gaitic? Bacarric escatuten deuseu izan gaitiala cristiñau onac, ta eguiñ daigula bere eleissa santiaren aguiñdua. Orra bada cristiñauac cer gauza guichija dan escatuten deusecuna. Orregaitic bada, eguiten ezpadogu Jesucristoren aguiñdua Aita santuac dirauzeu moduan, galduac gara seculaco.

Esan dot celan Judeguac imifii eben Jesus lapur deunga bijan erdijan, ceñchubec esaten eutseezan Jesusi batac baño bestiac berba deunguac; eta naicua ezpacirian leguez esaten eutseezan berba zantarrac bere biotza penaz betetaco esaten etuseen burlaz moduan; Jaungoicoaren semia bazara gjatsi zaitez curutzetic eta gu bere jatsi gaizuz? Orduan sinisteco dogu Jaungoicoaren semia zariala. Beguiru cristiñauac cer modutan eguiten eutseen burla lapur bijac Jesucristo Jaunari. Baña alan da guzti bere beti izan da eta izango da guztiz samurra Jesusen biotza, bera gana damuz biurtuten dirian pecatarijeentzat: au emon eban eracusten, curutze santian josiric egoula.

Icusiric bada cer modutan tratau oben Jesus lapur bijac, gñoc esango eban dempora pusecabat barru icusico zala Jesucristo Jaunaren gracijazco millagro andi bat? Bada orrela icusi zan.

Esecumaco lapur Dimas erichonac (orsaiñ lapur ona) biurturic burua Jesus gana, (1) esan eutsan;

(1) Ezagutu eban Jesus zala Jaungoicoaren semia, berac emon eutsan gracijagaz.



¡Jaunal acordau zaitez nigaz, ceure Erreiñuan zagozarian.

Icusiric Jesus onac benetacua zala bere peccatuen damua, esan eutsan; gaur neugaz egongo zara glorijan.

Cristiñauac: au jazo zan lapur onagaz azqueneco orduan, Jesucristo Jaunac equijen cergaitic: misericordija cuqui eban gueure Jesus onac lapur onagaz azqueneco orduan; baña guri dirauzeu ez daiguzala ichi azqueneraco, gueure arimeen onian dirian gauzac: cergaitic ez-daqui-gulaco güe ordu atan cuquico badogu lecurie edo demporarie biar dan leguez artuteco, bere gorputz santua. Contu bada cristiñauac, ta ez-gaitian lö egon Jaungoicoa gaitie gueuretzat aifñ gauza andijaren gañian; ceñetan daucagun betico salbaciñoia, edo betico condenaciñoia. Ez daigun bada erratu gueure erruz.

Guizon fede bacuac: ¿celan biurtu zan lapur ona aifñ dempora guichijan damu guztijagaz Jesucristo Jauna gana? Emon eutselaco Jesucristoc berac azqueneco orduan bere gracija; au da, icusi leijen bera zala Jaungoicoa. Beguira bada celan Jesucristoc emon eban curutzian josiric egoala, bere Jaungoicotasunan eracutsija.

---

X.

**Jesucristoren Jaungoicotasuna  
Jesus illda, curutzian.**

Munduco Salbaguillia curutze santian ill zanian, (iru ordu eguiñ cituzan bicirie curutzian) izan zan lúr icara andi bat. Achac idigui cirian; illac biztu cirian, eta eguzquiya illundu zan.

Ieusirie san Dionisio Ario-pajita izar igarla jaquitunac egun ataco eguzquiaren illuntasuna demporatic canpocua zala, esan eraguiñ cutsezan berba oneec; Jaungoicoa dago aleetan, edo munda bere azquetan.

Judeguac Jesus ill eben egunian, san Dionisio egoan Egipton Eliopolis erichon Ciudadian; eta emendie igaro zan Atenazera, (Gresijaco Capital edo erri nagosija) cein zan bere errija.

Santu onen demporan egozan Atenazen munduco guizon jaquituneenac, izanic berau jaquiturijan lelengua. Guizon oneen artian cirian asco tribunaleco Juezac, izanic san Dionisio oneen artian bat. Erreligiñoian, Juez guztijac izan cirian gentill edo paganuac.

Ieusirie san Pablo Apostoluac pena andijagaz jaquitun oneec erri guztijagaz ichuturie egozala

erreligiño falsuacaz, jua zan euren artera amodijoz beteric Jesucristo Jaunaren Ebangelijo santuaren eracutsija emolera, ta asi zan egun baten calian prediquetan Ebangelijo santu onen doctrinia: bafia icusirie ango gentiac etzala a doctrinia euren erreligiñoiac eucana, eldu eutseen eta eruban eben tribunalera Juezen aurtera, esaten eutseela cergaitic eroieen.

Jaquitun oneec beti egozan jaquiñ gurarie, gauza barriac; orregaitic bada, san Pabloc euren artera croian doctrinia barrija zan leguez eurentzat, esan eutseen Juezac; Adisquidia; zariana zariala, asi zaitez berbeetan gure artera dacartzun doctriniaren gafian. Asi zan santua berbeetan ta emon eutseen guztijai Ebangelijo santuaren arguitasun edo eracutsija. Entzunic Juezac doctrinia santu au san Pabloren agotic, guztijac guertu ciririan mirariz beteric; eta onegaz biurtu cirian Jesucristoren erreligiño santara tribunal ataco Juez batzuc, ta oneen artian san Dionisio jaquituna. Orduan icusi edo ezagutu eban santu andi onec azquenengo izan zan eguzquijaren illuntasuna izan zala, Judegu borraruac Jesucristo gucure Jauna ill eben egunian.

Guizon fede bacuac: ¿cer diñozue emen? ¿Es deusue indarric eguiten edo cer pentsauric emoten san Dionisio jaquitunac Jesucristo Jaunagan Jaungoicotasuna sinistutiac? Bada..... ¿cer gura dozue? ¿Jatsi dedilla beste beñ cerutic lurrera ta esan deizuela neu naz subec sinistu gura ez do-

zuen Cristo Jaungoicoa? Ez: ez dozue ori icusico munduan gueijago Juicijoco egunerarte; baña bai icusico dozue lenago bere Jaungoicotasunagaz, bere Tribunal santuaren aurrera elduten za-reenian.

Autortu eguizue bada billdur бага, Jesucristo Jauna dala Jaungoicoa; eta eguiñ bere esana bat-bere lotsarie бага, bere eleissa santiaac aguiñdu-ten daben moduan.

## XI.

### **Jesucristoren Jaungoicotasuna Jesus ill, eta biztuta.**

Ondo equijen Jesucristo Jaunac cer modutaco eriotzia emongo eutseen Judeguac, eta celan dem-pora guichi barru illgo eben.

Judeguac entzun da euqueen celan Jesucristo Jaunac esan da eucan ill eta irugarren egunian urtengo eban biztuta, enterrauta egoan sepultu-ratic: orregaitic bada. Jesus ill eta lasterrian juan cirian Judegu borraru batsue Pilatos gana, esaten eutseela; Jauna! Jaungoicoaren semia zala esan ebanari entzun gueuntzan esaten cé ill eta iruga-rren egunian biztucó zala, ta urtengo ebala ente-

rrauta egoan sepulturatic: gatoz bada berorregana esaten jagolac imini biar diriala sepulturari gabaz bere icasla edo discipuluac jua ta ostu ez deijeen eta gucro sinistu eraguin errijari biztu dala berac esan da eucan moduan: eta badaqui Jauna au jazoco balichate, len baño eharrau gueratuco guinatezana. Pilatosec erantsun eutseen borraruai; ceubec daucazuez guizonac, jagoleco.

Entzunic borraruac Pilatosec erantzun eutseena, imini citubezan eura sepulturari jagolac. Baña... ¿cer balijo dabe guizoneen asma ta eguini al-leijeezan gauzac Jaungoicoa iraunduteco badi-ra? Ecer bere éz.

Irugarren egunian goissian goissetie urten eban Jesusec biztuta sepulturatic, berac esan da eucan moduan; eta urtetaco demporan izan zan bertan lur icara andi bat, ta jagolac jausi cirian illda leguez. Etorri cirianian oneec euren cenera, gueratu cirian mirarie beterie cer icuste ebon ez-equijeela; eta autortu eben celan hurrera jausi baño lenago icusi eben aingueru bat cerutic jatsita arguitasunaz beterie, eta celan onec jazo eban sepulturaco losa edo estalqui arrija.

Jagola oneec aini modutan icaratu cirian icusi ebenagaz cé beriala igues eguiben egozan lecutie, ta jua cirian barri onegaz euren Sacerdotiac gana. Sacerdotiac gueratu cirian jogolac esan eutseczan guuzacaz, cer pentsau ez cer asmau ez-equijeela: azquenez otu jaqueen dirua aguin-dutia jagolai, zabaldu leijeen loac artu cituzala

eta bitarte onetan Jesusen icaslac ostu ebela bere gorpua.

¡Cristiñauac! ¿Cer derichezue Sacerdote Judeguen asmuari? Lucifer deunguiari ez jacaen otu-oco, beste gauzaric: bafia alperrie.

Ieusaric Judeguac Jesucristo Jauna curutze santian ill zanian izan zan lür icaria, illac biztutia, eta eguzquiya illundutia, icaratu eirian guztiz; eta esaten eben euren arteco ascoc euren bu-lerrac damu moduan escuacaz joten citubezala; dudarie baga da ill da bena Jaungoicoaren semia, Mesias eguijazcua.

Beguiria bada celan Judegu ascoc ezagutu eben Jesucristo Jaunaren Jaungoicotasuna, curutze santian ill eben egunian.

Cristiñauac: ¿celan da bada gaureo egunian (1889 garrenian) guizon ascoc sinistu gura ez izatia Jesucristo Jaunagan Jaungoicotasuna? Ez danqueelaco federic: orregaitic dabiltz bere erre-ligiño santia illundu guraric, ta eleissa santia azpiratu guraric; bafia alperrie ibillico dira: diñot alperrie ibillico diriala, dalaco Jesucristo Jauna- ren eleissa santia ichas egaleco ách guztijac ba-ño gogorragoa. Orregaitic bada, ách áu ausi gu- ra dabecen oliatu guztijac ausico dira orañ arte ausi dirian moduan. Ez ibilli bada ecer ateraco ez dozuen gauza baten contra, ceuben arimen caltían; eta áu dirautsubet, ceuben onian.

---

XII.

**Jesucristoren Jaungoicotasuna  
Jesucristoc igon eban ceruetara.**

Jesucristo Jaunac esan da eucan celan illda guero irugarren egunian, biztucó zan: eta bere berbiac ecin faltau euquian leguez, alan jazo zan: eta egun onegaz berroquei garren egunian igon eban ceruetara bere inðarrez, eta dago jarrita Aita Jaungoicoaren escumaco aldian; ta andic etorrico da munda onetara dudarie baga, illac eta bicijac juzguetan.

¡Cristiñau maitiac! ¿Badaquizue cer esan gura daben illac eta bicijac juzguetan? Uste dot baietz: bafia balégo bat edo beste ez daquijenic, neuc esango deutseet. Esan gura dau cé Jesucristo Jauna etorrico dala munda onetara Juicijoco egunian, guztijoi azquenengo epai edo sentencija emotera; au da; onai edo bere legue santia ondo gorde dabenai emongo deutsee cerua; eta deungai edo bere legue santia ondo gorde ez dabenai. infernua: au da Jesucristo Jaunac esan da daucana. Ibilli gaitian bada artez.

Cristiñau eta cristiñau etzareenac: (eznaz aspertuco azquenenguai dei eguitiagaz) acordau gaitian Juicijoco egun icaragarrijagaz, eta euqui

daigun aimbat sarrijen goguan. Pentsau edo gomutan daigun egun atan jausico jacula Jaungoicoaren epai edo sentencija gueure gañera, eta á izango dala betico zorionecuae Jesucristo Jaunagaz ceruan izateco, edo betico zorigaistocuae Luciferregaz infernuan izateco: eta ez uste izan beste modutan izango dala.

Egongo dira benturaz guizonac barre ta burla eguiño deutseenac, diñodazan gauzari; buña dirautseet nie onei; ¿cergaitie barre eguiñ? ¿Uste aldozue neuc asmauac diriala? ¡O! ez uste izan olango gauzarie: Jesucristo Jaunaren esanac dira, eta bere esanac ez dabe faltanuco orain arte faltan ez dabeen moduan.

¡Neure Jesus laztana! sinistuten dodaz nie esan dodazan eta ceure graciazagaz esango dodazan gauza guztijac, ceure erreligiño santiaren gañian; eta nai nenque mundu guztijac sinistu daizan biot guztirie, neuc sinistuten dodazan leguez; éz neuc diño dazalaco, ezpada ceuc esan da daucazuzalaco. ¡O Jesus maitia! emon eguiguzu bada guztijoi ceure gracia biar dan leguez gordetaco, ceure erreligiño santia.

Ondo daquit Jauna graciajarie asco bialduten deusecuzuzana gueuc artu nai badoguz: eta gracia orreecaz azlu ezgaitian, bialduten deusecuzuz aldirie aldira misiolari Jaunac entzun daigun euren agotic ceure berbia. Onez gañera dauca guz gueure parroco Jaunac gracia orreec gogoratuten deusecuzanac, euren sermoiacaz.



Guazan orain misioi santuetaco sermoi bate-  
ra, esateraco paracaiñocua esaten deutseenera:  
bada sermoi au esan leique dala beste guztijen  
artian, gracia gueiljen daucazana. Eta ori... ¿cer-  
gaitie? Cergaitie beti dagoalaco gentia jaquin  
gurarie nos izango dan paracaiñoco sermoia, úts  
eguin ez deiheen bildurragaz.

Eldu da bada sermoi áu predicauco dan egu-  
na eta dua gentia eleissara: igon dau misiolari  
Jaunac pulpitu santura, ta asten dau sermoia.  
Mundu guztija dago eleissan esaten dan leguez  
zarata bat eguiten ez dabela entzuteco, predica-  
doriaren agotie urtetan dabeen berba guztijac:  
eta aldirie aldira entzuten dira eizpuru ta negur  
zarata tristiac. ¡Cristiñauac! ¿Cer esan gura dau  
once? Esan gura dau orduan gogozala danuz  
beterie aimbeste bidar gueure Aita Jaungoico  
oua iraindua gaitie: eta prest gagozala parcatute-  
co gueure arerijo ta deungaro eguin deuscuela  
uste dogun guztijai. ¡O Jesus maitial! acordauco  
baguina sarri sermoi atan eguin guenduzan pent-  
samentu eta propositu onacaz, etzenduqueguz  
aimbeste bidar irauduco.

Amaitu da bada sermoia; urtetan dogu eleissa-  
tie, ta dirantssgu batac bestiarie: eta... ¿cer ere-  
chi deutzazu sermoiari? ¡O! sermoi ederra izanda;  
eta esan dabén guztija da eguija. Orra bada neu-  
re Jesus ona celan urten dabeen guztijac misi-  
ñoi santutie, ceuro graciaz beterie. Bafia... ¿cer  
jazoten jacu dempora guichi barru, edo egun

guichi barru? ¿Cer jazoco jacu? Aztuten gara sermoi atan entzun guenduzan gauza ederracaz, ta agur projimoari parcatuteco eguiñ guenduzan pentsamentu ta propositu onac, ta agur gure gracijac. Cristifiauae; ¿au da cristifiau izatia? Ez.

Cristifiauae izan biar dau cristifiau eleissan dagoanian, cein eleissan ez dagoanian. Arquijago: cristifiauae izan biar dau dempora guztijetan bardiñ: orregaitic bada, entzuten badau bere gustoco sermoi bat ceñec samurtu deutsan bere biotza projimoa ganaco amodijuan, sermoi á euqui biardau sarri bere goguan, eta orduan izango-da erechi baten cristifiau ona, ta euquico deutso beti projimoari amodijo andija cein dan Jesucristo Jaunac eracusten deusecua.

¡Neure Jesus amodiosua! ona arte izan bagara cristifiau ótz edo apelac, sendatu gaizuz ceure gracijagaz, aurrerantzian izan gaitian cristifiau inñdartzu ta benetacuac; modu orretan sinistu daiguzañ eta eguiñ ceure eleissa santiae Aita santuaren bitartez eracusten deusecuzan gauza guztijac. Baita bere biar dogu Jauna ceure gracia euqui daiguzan inños aztu бага predicadore Jaunac esaten deusecuzan berba ederrac pulpitu santutic ceure erreligiño santiaren gaitian ¡Bai Jesus lastama! Juicijoco egunian mundu onetara gu juzguetara edo epaija emolera zatozarian, imiñi gaizuzan guztijoc escumaco aldian.

---

## Guizon fede-bacuai

Guizon fedebacuac; uste dot naicua arguitasunie edo eracutsiric emon deutsuedala sinistu dai-zuen Jesucristo Jaunagan Jaungoicotasuna: orregaitic bada bazenduquee fede puscabaj, etzenduquee batbere dudarie euquico Jesucristoren Jaungoicotasunan gafian; eta sinistuco ceunqueez fede biciATEGAZ bere eleissa santiac eracusten deuscuzan gauza guztijac. Azquenez; ¿celan euquico ez dau Jaungoicotazuna illac biztu cituzanac, eta gueissuac bacarric osatuta zagoz esanagaz osatu cituzanac? ¿Celan euquico ez dau diñot Jaungoicotasuna ichubai bistia edo beguijetaco arguitasuna, mutubai berbia, ta gorrai entzutia emon eutsanac? Orregaitic bada, Jesucristogan Jaungoicotasuna ez sinistutia dá cein da esalia leguez eguzquijac ez dabele arguitasunie emoten, edo eguna gaua dala. ¡O! ez gaitian bada izan zoroac, eta sinistu daiguzan errazoiac dirauzcuzan gauzac fedeco gauzeetan.

Orañi bada; imiñi dodazan errazoiac Jesucristo Jaunaren Jaungoicotasunagan betetan ezpadi-tuez suben biotzac, iracurri eguizuez bere bicitzaren liburu sagraduac ta orduan esango dozue damu guztijagaz; ¡O Jesus maitial! ¿Celan egon gura gú orañi arte aini ichutasun andijan? Parea tu eguiguzuz Jauna esango cenduquee orañi arte eguini deutsuguzan ofentsa guztijac, eta aurre-

rantzian sinistuco dogu ceure gracijagaz ceure Jaungoicotasunagan. Baita bere sinistuco dogu ¡O Jesus laztana! celan ceure Apostolu eta ministro guztijai (eleissaco ministro Jaunai) emon ceuntseen escubidia ceure izenian pecatuac parcatuteco guizon gustijai, Confesiño onaen bitartez. ¡Bai guizon fedebacuac! orrela osango cenduquee len esan dodan lequez, fede apurbat bacenduquee. Jaungoicoac arguitu deizuezala bada bere gracijagaz, ceuben adiñac.

### XIII.

#### Berba batzuc Confesiñoian gañian

Cristiñauac: ondo daquit nie celan guztijoe edo gueijenoe daquizuen, cer aguinduten deuscun edo cer eracusten deuscun Confesiñoico mamentu santuac: baña euqui deijan liburuchu onec puscabat guztirie, pentsau dot cerbait esatia Confesiñoian gañian.

#### Confesiñoia.

¿Cerdá Confesiñoia? Confesiñoia da autortu edo Confesetia Jesucristo Jauuaren ministroai gueure pecatuac, batbere ichi bagaric: dada badaquigu cer guazan artuten Confesau eta guero;

Jesucristo Jaunaren gorputz santua: orregaitie bada, au artuten badogu arima loijagaz, gueratuco gara len baño loijago.

Ez daigun euqui billdurric ez lotsaric pecatuac Confesetaco Confesoriari, alan izan gueure adisquideric andijena, laquiñ eguizue cristinauac Sacerdote Jauna Confesonarijo edo autort lecuan dagoanian, Jaungoicoa bera balitz leguez dala; eta orregaitie echuten garianian bere ofietan, artuten gaituz amodijoz beteric.

¿Cer eguiñ biar dogu Confesau edo Comulgau ta guero? Cumplidu edo bete aimbat lasterren Confesore Jaunac emon deuseun penitencija. Eta.... ¿nosic nosera Confesau biar gura obligaciñoz edo premiñaz? Urtian bein pecatu mortalen beian: baña illteco arriscuric balego, lenago; au da; Comulgauco badau. Eta ¿cein demporatan izan biar dau Confesiño onec? Eleissa Ama santiac aguinduten deuseunian; cein dau garisumaco pasco demporia; oneri esaten jaco pascuagaz cumpletia. Eta.... ¿urtian bein Confesauagaz betetan dau cristinauac Confesiñoco mandamentu santua? Bai; orregaz beteten dau: baña sarrijago Confesetan bagara, oha; orrela egongo dira gure arimac garbijago, eta orregaitie egongo gara Jaungoicoagaz adisquidetasun andijauan. Beguira bada cé ondo dau sarri Confesetia.

Ondo dauizue nie esan baga urtiau bein garbituten da echiac, cer garbitu gueijago euquico dabela illian bein edo ille biric irura garbituten

danae baño: orregaitie bada cristinauac eguiñ biar dau contu edo gomutau biar dau bere arimía eche bat dala, eta ceimbat eta sarrijago garbituten daben, garbijago euquico dabela.

Cristinauac: urtian beinigo Confesiñotic canporo, ez deusat inori esan dodanagaz izentau gura demporarie Confesetaco; onetan bacochoac jaquiñ biar dau cer eguiñ biar daben: bada dagoz personaac zortzi egunerie zortzi egunera ta sarrijago Confecetan dirianac; orregaitie bada, persona oneec emon biar deutseen Jaungoicoari millaz esquerrac, orretaraco emoten deutscen gracia andija gaitie.

¡O Jesus amorosual emon eguiguzu bada cristinau guztijoi ceure gracia aimbat sarrijen Confesau gaitian, eta gure Confesiñoiac izan daitezcan ceure bildurrian bici dan cristinau batec eguiñ biar dituzan languac: modu orretan artu daigun zure gorputz sagradua, estadu gracijazcuan.

#### XIV.

**Jaungoicoac eta ez bestec  
parcatu leiquez, gure pecatuac.**

Dagoz guizonac mundu onetan diñuenac: ¿cer gaitie Confesau biar deusagüez gueure pecatuac

gueu lango guizon batzui? ¿Cé escubide dauquec guizon orreec (Sacerdotiac) Jaungoicoac bacarrie parcatu leiquezan pecatuac parcatuteco? Ara emen cristinauac Protestante edo Erejién eta Jesucristo Jannaren arerijo ichu guztijeen itaun edo esaqueria: nundic atera biar dogun guizon oneec ez jaquiña edo fede charra, erreligiñoco gauzeen gafián.

Itaun bat Erejiái: ¿ceinchubec dira esan gura dozuezan guizonac éz dauqueela escubideric guizonai parcatuteco euren pecatuac? ¿Couben Sacerdotiac edo Sacerdote izena emoten deutzazue-nac? (1) Orreec badira, eguija diñozue; baña..... ori badiñozue Jesucristo Jaun eta Jaungoicoa gana Consagrada dagozan Sacerdote Catolicu Apostolicu Erromanuac gaitie, dirautsuet erra-cuntza andi baten zagozeela. Sacerdote Catolicuac dauque escubide osoa Jesucristo Jaunac emon da, guizonai bere izenian pecatuac parca-tuteco Confesiñoian bitartez.

Sacerdotiac gueu lango guizonac diriala; egui-ja da; gueu lango guizonac dira; baña ez dira gú languac Confesonarijo edo beste lecu baten Con-fesiñoian dagozanián: orduan dira, Jesucristo be-ra balira leguez; au da gauza fedecua.

Jesucristo Jaunac emon eutseen bere Aposto-luái escubidia guizonai pecatuac parcatuteco, edo éz parcatuteco; orregaitie esan eutseen; zubez

(1) Bacarrie dira Sacerdote eguijazcuac, Jesucristo Jauna gana, Con-sagrada dagozannac.

munduac eguiten dozuena, ceruan eguiñ-da gurratueco da; esan gura dau; zubece munduan parcatuten dozuezan pecatuac, parcatuac ceruan izango dira; eta lotuten dozuezanac, lotuac izango dira. Beguira bada celan dauqueen asi Aita santua ganie (Apostolu guztijeen nagosija) eta Jesucristoren beste ministro guztijac, guizonai pecatuac parcatutecco escubidia. Ez daucagu bada erremedijoric, edo beste izate moduric: Confesau biar deutzagüez gueure pecatuac batbere ichi baga Sacerdote Jaunai, ta artu guero, fede bici bategaz, Jesucristo Jaunaren gorputz sagradua; cein dan Comuniño santua. Onelan eguiten ecpadogu, infernura juan biar dogu. ¡O! Birgiña Marijac lagundu deigula, galdu ez daigun gueure erruz ceru, ederra.

## XV.

### **Cristiñauac diriala diñuen asco, ta Confesiñoia.**

Cristiñauac: penaz eta larritasunaz beteric diñot, ez diriala Erejiac bacarric Confesiñoia gaitie deungaro berba eguiten dabecnac. Cristiñauac diriala diñuen guizonac dagoz, Ereje batzuec balira leguez edo Erejiac eurac baño deungaroago



Confesiñoia gaitie berba eguiten dabeenac; eta cristinauac diriala diñuen guizonac dagoz esaten dabeenac, Confesiño santia Abadiac ta Frailliac asmau daben gauzia dala; au da; jaquitia gaitie cer igaroten dan familiaen artian,

¡Cristinau benetacuac! ¿Cer derichezue, edo cer diñozue esan dodan moduan berba eguiten dabeen cristinauac gaitie? Eguijaz dirautsuet nic, ez daquidala cer esan: bacarric esango deutsuet guisa orretan berba eguitia dala, Diabruaren asmau; eta Luciferrec daucazala catietuta cristinauac diriala diñuen asco. ¡O crissinau fedia galduta daucazuenac! ¿Badaquizue cer esaten dozuen, edo cer eguiten dozuen? ¿Modu orretan erantzuten deutzazue ceubec gaitie aimbeste neque igaro cituzanari? ¿Modu orretan diñot erantzuten deutzazue Jesucristo Jaunari zubece gaitie eta munduco guizon guztijac gaitie tormentu icaragarrijac artu cituzanari ta azquenez gure arimac salbetia gaitie bere bici preciosua curutze baten josiric emon ebanari? Azquenez; ¿modu orretan erantzuten deutzazue esan leique Jesucristo Jaunaren eleissaco mandamentu santu andijenari cein dan Confesiñoco mandamentua bera baga salbeu cein guñaitezanari? (au da; Jesucristoren esaugueria badaucagu, eta demporia Confectaco ta Comulguetaco).

¡O cristinauac zareela diñozuenac eta Confesiñoia gaitie deungaro berba eguiten dozuenac! esquer charrac emoten deutzazue, ceuben Jesus

onari. Baña emen esango dozue benturaz; ondo bada; premiñacua bada Confesiñoia arimac salbetaco, azqueneco orduan Jaungoicoa gana guztiz biurtuten garianian, Confesauco gara. ¡O azqueneco ordu triste eta larrija! cristiñau asco onelan esau baleique, engañetan dituzuzana.

Esanda daucat liburuchu onetan ez-doguzala ichi biar azqueneco orduraco, gueure arimeen oneraco dirian gauzac; bada ez daquigu güc Jaungoicoac ordu atan emongo badeuseu bera gana biurtuteco lecuric.

Azqueneco orduan biurtuco gara Jaungoicoa gana, ta orduan escatuco deusagu gueure pecatuen parcaciñoia. Onelan berba eguiten dabeen cristiñauai, itandu biar deutseet; eta.... ¿celan azartuco zaree azqueneco orduan Jaungoicoari ceuben pecatuen parca escatuten biar bada ceuben dempora guztijan edo gueijenian bera ganic alde eguiñ da ibilli zareenoc, eta bere legueco mandamentu santuai barre ta burla eguiten izan deusazuenoc? ¿Celan azartuco zaree azqueneco orduan Jaungoicoari ceuben pecatuen parca escatuten biar bada aimbeste urtian Confesau baga, meza santu bat entzun baga, ez barau bat eguiñ baga bici sareenoc? (penaz beteric diñot badiriala olango cristiñauac) ¿Cor bada? ¿Uste dozue benturaz Jaungoicoac ceubec nos gura ta orduan entzungo deusuela? ¡O cristiñau errucarija! ez zaiteze izan zoruac, eta gomutau egizue beste modutan. Gomutau egizue (eta au

guztijoe) celan Jaungoicoaren billdur santuan bi-  
 ci izan cirianac, emacume ta guizonac, igaro ci-  
 tubezan basamortuetan urtiac penitencija andi-  
 jetan, euren arimac salbetaco. Bada... eguiñ  
 bacitubezan aifñ penitencija andijac esan leique  
 santuac cirianac euren arimac infernucó sú-ga-  
 rreotaric libretaco, ¿celan diñozue zubez azque-  
 neco orduan biurtuco zareela Jaungoicoa gana ta  
 orduan escatucó deutzazuela ceuben pecatuen  
 parcacifñoia? ¡Cristiñau ciñzuac! ¿Ez da au peca-  
 tarijac onelan esan baleique Jaungoicoari burla  
 eguitia? ¡O Jesus maitial erruqitu zaitez guizon  
 oneecaz, eta emon eguijuzue adifñaco arguitasu-  
 na iraundu ez-zeijeezan gueijago éz berbacaz, éz  
 pentsamentu charracaz.

Guazan oraiñ beste gauza batera: zubez diño-  
 zue azqueneco orduan biurtuco zareela, Jaungoi-  
 coa gana; cein dan esatia leguez: á ibilli gaitian  
 gueure nasaitasunian aldogun artian, ta guero  
 gueijago ecin dogunian biurtuco gara Jaungoi-  
 coa gana. Ondo dago; izan dedilla ceubec gura  
 dozuen guztija orrela ondo baderichezue: bafñ...  
 ¿badaquizue benturaz nún eta cer modutan izan-  
 go dan zuben azqueneco ordua? ¿Badaquizue  
 izango bada ichasoz zoazeela, burdiñazeco bidian  
 zoazcela, buruco ariñ edo centzuna galduta ber-  
 tatico eriotza bategaz izango bada? Eta orrela  
 jazoco balichateque, ta illgo baciñateze ceuben  
 pecatuac Confesan bage, ¿nora juango lichatez  
 zuben arimac? Artez artez infernura; au da Je-

sucrito Jaunac olangoentzat emon da daucan epai edo senteneija. Confecetan ezpadoguz bada gueure pecatuac demporaz, eta damu andijagaz azqueneco orduari bequiria egon bago, beti egongo dira gure arimac condenetaco arriscu andijan. Confesau gaitian bada aibat sarrijen, pecatuari ez Confesore Jaunari billdurric izan bago: esan gura dot; ez daigula euqui billdurric gueure pecatuac Confecetaco eta guichijago Confesore Jaunari, artuco gaituzalaco onec amodijoz eta caridadez beteric.

Esan dot celan dagozan guizonac cristifianuac diriala diñuenac, Jaungoicoaren eleissaco mandamentu santuari barre ta burla eguiten deutseenac: orregaitie Jaungoicoac artungo deutsee contu eiztua onelango cristifianuai; cergaitie cristifianu izenegaz Jesus maitia salduten dabeelaco, eta orregaz escandalu andija emoten dabeelaco.

Pecatu guztijac dira Jaungoicoaren aurreraco zantarrac; bafia esan leique ez dagoala escandaluco pecatua bafio zantarragoric, ez andijagoric. Pecatuac dagoz bacarric noberen arimari calte eguiten deutseenac; bafia escandalua emoten dabena eguiten deutse calte bere eta beste ascoren arimai: orregaitie esan eban Jesucristo Jaunac; ¡A escandalua emoten dabenenal orrec izango dau castigu icarugarrija: ez bacarric bere arimia galdu dabelaco, bafia bere, bere cjemplu charragaz beste ascoren arimac galdu dituzalaco. Beguira bada cristifianuac, cé motza edo ichu-

sija dan escandaluco pecatua. Ill bedi bada betico peccatu zantar au, cristinauen artian.

Icusi daigun azquenez Confesioia bada, Abadiac eta Frailliac asmau daben gauzia. Imiñi daigun (jazo dan gauzia da). Ereje bat biurtu dala fede biciATEGAZ Jesucristo Jauna gana, ta cristinau Catolicu eguiñ dala: ¿cer da leleengo onec eguiñgo dabena? Juango da Confesore bategana ta Confesanco ditu bere pecatuac, modu orretan gueratu deitian bere arimia estadu graci-jascuan: au izan zan eguebena Magdaleniac, san Agustin andijac, san Pablo Apostoluac, eta beste onec lango ascoac; ta au izango da aurre-rantzian eguiñgo dabena, cristinau Catolicu eguiñgo dirian guztijac.

Orra bada celan ez dan Confesioia Abadiac ta Frailliac asmau daben gauzia, eta bai Jesucristo Jaunac guztijoi peccatu mortalen beian imiñi deuscuna. Ez daucagu bada erremedijoric; autortu gueure pecatuac Confesore Jaunari, edo condenau.

¿Cer diñozue orañi azqueneco orduan biurtuco zareela Jaungoicoa gana diñozuenoc? Jarratuco deutzazue ondiño erracuntzaco bide orreri? ¡O Jesus erruquiorra! atera eguizuz guizon onec dagozan ichutasuneric, eta emon eguijozue ceure graciaja aimbat sarrijen Confesau daitezau.

Cristinauac zareela diñoznenac: ¿billdur zarce ceuben peccatuac autortuten Jesucristo Jaunaren ministroai? ¿Cergaitic baña bildur ori? ¿Izango

da benturaz urte ascotan Confesau бага zagozee-  
laco edo ceuben pecatuac andijac dirialaco? ¿Cer  
bada? ¿Izango zaree zubez pecatari andijauac  
Jesucristoren cleissaco altara santuetan adoretan  
doguzan santu andi asco izan cirian baño? Orre-  
la balizate bere, ez euqui billdurric ez lotsareric  
Confesore Jaunaren onetan echuteco. Confesoriac  
nai dabeena da, arima erdi galduan edo conde-  
netaco arriscuan dagozanac, irabaci ceruraco.  
Azquenez; badaucazue Confecetaco borondatia,  
baña ezpadaucazue inñarric edo arpeguiric Con-  
fesore Jaunaren onetan echuteco, eldu zaiteeze  
baoccha Birgiña Marijaren irudi baten aurrera,  
eta auspezturic bere aurrian eguijozue erregu áu.  
¡O Birgiña Marija, Jaungoicoaren eta neure Ama  
maitial nire borondatia da Confesore baten on-  
etan echun eta neure pecatu guztijac autortutia:  
bafia onetaraco biar dot ceure laguntasuna: na-  
tor bada zugana. ¡O Ama laztana! eta erregutu-  
ten deutsut jadetsi edo alcantzeu deidazula ce-  
re seme Jesus ona ganic aimbat lasterren, Con-  
fesiño on-bat eguiteco biar dodan gracia. Au  
eguiten badozue borondate onagaz eta fede bici  
bategaz, ciur izango da alcantzeuco deutsuena  
Birgiña Marijac, escatuten deutsazuen gracia.

---

XVI

**Aiñ dagoz erreligiño asco cé ez daquigu  
cein dan eguijazcua.**

Cristiñauac: arguituco ezpaneuquez esa-aldi onetan bururatu dodazan berbac, esango cenduquec errazoe andijagaz ez dala cristiñaua iracurri áu imiñi dabena: eta ori izango lichate eguija. ¿Celan izango-da cristiñaua modu orretan berba eguiten dabena? Ecin izan leiteque.

Dagoz bada guizonac bururatu dodazan berbac esaten ditubezanac: eta diñue; orregaitic jarraituten dogu gueuc nai dogun erreligiñoia, ez daquigulaco cein dan eguijazcua. Aitu gaitian emen guisa orretan berba eguiten dozuen guizonac. Beñ diñozuen ezquero erreligiño asco dagozala eta orregaitic ez daquizuela cein dan eguijazcua, erreligiño oneen artian egon biar dau batce eguijazcuac: eta erreligiño eguijazco bat badago, (dagoan leguez) ¿celan aimbeste juacun gauza baten (ariñen salbaciñoia, edo condena-ciñoia) ondo beguiratu baga cein dan erreligiño eguijazcua edocciñ erreligiñotan zubez echutia ta aiñ zabal gueratutia esanagaz ez daquigu cein dan erreligiño eguijazcua? Ezda ori iñoc eguiñ

biar dabena, ta guichijago euren buruac jaquituntzat dauqueezan guizonac.

Ez-daquizuela cein dan erreligiño eguijazcua; bada uste badozue guzurra eguijagaz nastau dabecela, eguizue aleguiñ guztija guzurrera echun buño lenago, eguija billatuteco; eta bazabiltze borondate ta fede onagaz, topauco dozue: bada ondo daquizue eguijac beti daucana bere antza, guzurrae daucau moduan.

Aiñ dagoz erreligiño asco cé ez daquigu cein dan eguijazcua. Onelan diñue pensamentu-librecuae diriala diñuen guizonac. ¡O guizon fede Lacuael ¿Cerdifiozue? ¿Ez daquizuela cein dan erreligiño eguijazcua? Bada ez-euscun ecarri Jesucristo Jaunac jzuzijoi erreligiño eguijazco bacar bat cerutic lurrera jatsi zanian? Eta.... ¿ez-euscun emon erreligiño eguijazco onen eracutsija Calbarijoco mendijan curutze santuae ill eben egunian? ¿Cergaitic ill zan Cristo curutzian? Gure arimac salbetia gaitic: guero.... esan gura dau cé gure arimac salbetaco altasuna daucana, Jaungoicoa dala: orregaitic bada, Jesucristo Jauna Jaungoicoa dan leguez, bacarrie da erreligiño eguijazcua bere eleissa santiac eracusten deuscuna. Orra bada arguituta cein dan erreligiño eguijazcua.

Libre-pentsadore Jaunac: ¿cé erru dauco Jesucristoren erreligiño santiac bere albora ecarri badeutseez guizonac asmau ditubezan erreligiño falsuac? Esan eguidazue Jesucristo Jauna ganic



alde eguiñ da zagozeenoc; ¿cé erreligiño modu dira Mahomac, Luteroe, Calbinoc, eta onec lan-go beste ascoc asmau ditubezanac? Beguiratu eguijozue ondo onei, ta icusico dozue celan dirian erreligiño falsuac: orregaitie ez dabe meresidu erreligiño izenic. Azguenez; ¿cé erreligiño edo doctrina modu dira zubez pentsamentu libre-ucac zarreela diñozuenoc, ceuben Escola laiqueetan iracasten dozuezanac? ¿Celanguac izango dira? Jesucristo Jaunaren contracucac, eta orregaitie ceubec gana duazan ume tristien arima ederrac, condenetaco arriseu andijan imiñten ditubezanac. Ondo daquizue libre pentsadoriac áu eguija dala: baña zubezan icusten doguna da, gauza bat. Zubez gura dozuena da, nastau erreligiño falsuac erreligiño eguijazeucagaz, eta esan guero ecer expalitz leguez; ez daquigu ecin dau erreligiño eguijazeua. Ondo dago: eta ezpadaquize ecin dan erreligiño eguijazeua, ¿cergaitie eguiten deutzazue aifñ guerra andija bacarric Jesucristo Jaunaren erreligiño santiari? Daquizuelaco áu dala bacarric eguijazeua; eta irunsi ecin dozuen leguez, edo bere izena entzun gura ez dozuen leguez, eguiten deutzasue aifñ guerra andija: baña alperric izango dozuez ceuben asmu guztijac.

Guizon fede bacuac: izan leiteque benturaz zubez Jesucristo Jaunari billdurric ez euquitia; baña egon zaitezco jaquifen gañera: eriotziac artuten bazaitue modu orretan, Jesucristo bera

izango dala botaco dituzana zuben ariina tristiac secula betico infernuco ondarretara. Orregaitic bada jaquiñ gura ezpadozue oraiñ cein dan errelegiño eguijazcua, jaquiño dozue egun triste atan.

¡O Birgiña Marija, Jaungoicoaren eta gueure Ama maitia! erruqitu zaitez ceure seme Jesusen arerijo guztijacaz, eta jadetsi edo alcantzau eguijozue bera ganic gracia alde eguiñ daijeen dabil-tzan bide oquerretic; eta eguizu etorri deitezán aimbat lasterren, bide zucenera. Cein dan Jesu-cristo Jaunaren eleissa santia.

Gauza eder asco (1) escribitzen dira gaurco egunian liburu eta periodicuac esaten deutseen paperetan, gueure errelegiño santiaren gañian: baña esan leique oneec guztijoc diriala erderaz-cuac; (Españian esan gura dot) eta dagozan leguez euscaldun asco erdera berbeetan ez iracurten ez daquijeenac, dira premiñazcuac eusquerasco li-burubac jaquiñ deijeen euscaldun guztijac cer modutan duazan munduan errelegiñooco gauzac.

¡Cristiñau maitiac! badaquizue celan dabil-tzan Jesucristo Jaunaren arerijuac erriric erri zabal-duten gueure errelegiño santiaren contraco, libu-ru deungac; ta ez bacarric liburubac, baita bere oneen antzeco paper periodicuac: eta onegaz eguiten deutsee calte andija, guizon ascoren ari-mai. Orregaitic bada, arerijuai eguiñ biar jaquee

(1) Baita santarrac here, eta conta onecaz.

guerra, eurac eguiten dabeen arma moduagaz; ezdot esan gura onegaz eguiñdeijogüela guerra eurari, (gueure anaijac dira) ezpada eurac zabal-duten ditubezan liburu eta periodicuac dauque-  
ezan doctrina erracunzacuai.

La bada euscalden jaquitunac: badaqui je cer modutan dagozan munduan erreligiñoco gauzac: escribidu beijeez bada eusquerazco liburubac gueure erreligiño santa, ta eguijazeuaren gafiian, eta euroen berba bacocho izan dedilla cristiñauen eta cristiñau ez dirianeen biotzai uecutuco deut-  
seenac: eta orregaz eguiñgo deutsee mesede an-  
dija neure ustez, cristiñauai ta biar bada cristi-  
ñau ez dirianai.

## XVII.

### Erregua, Jesusi.

Neure Jesucristo Jauna: mesede bat escatuten deutsut ceure oñetan echunic, meresidu dozun errespetu ta beneraciño guztijugaz. ¡Jaunal balegoz nire lagun edo adisquideen batzue Escola laiqueen baten sartun dá edo alcartuta Escola orrectan iracasten ditubezan doctrina moduacaz, emon eguijozue ceure gracia alde eguiñ daijeen aibat lasterren bide orretaric. ¡O Jesus mañial

ondo daquit nic (ceue esan da) ceure legne santia-  
ren barruan illten ez dana ceruco glorijan sar-  
tungo ez dana. Orregaitic escatuten deutsut ¡O  
Jesus laztana! balogo len esan dodan leguez nire  
adisquideric nastauta doctrina erra cuntzaco orre-  
caz, emon deijozuela ceure gracia alde eguifi  
daijeen len baissen len, eta aurrerantzian izan  
deizuela amodijo andi bat.

¡Jaunal escatuten deutsudan mesedia nic me-  
residu ezpadot, iminten deutsut bitarteco ceure  
eta gure Ama Birgina Marija, daquidalaco  
oneri ucatuco ez deutsazuna, eta guichijago ceure  
Ama maitia bitarteco imifiten deutsanac boron-  
date onagaz escatuten badeutsu. Bada badaqui-  
zu Jauna ceuri eta projimoari deutsedan amodi-  
juac escatu eraguiten deustana, eta orregaitic  
ucatuco ez deustasuna.

¡Neure Jesus amorosual ceure semiac gara guz-  
tijoc eta guztijoc gaitic emon cenduban curutze  
santian josiric, ceure odol presioso ta bicitza ede-  
rra. Erruquitu zaitez bada gugaz, ta emon egui-  
jozue ceure gracia ceu ganic alde eguifi da da-  
gozan guztijai, biurtu deitezcan aibat lasterren  
ceu gana.

Cristianau cinzuac: san Ignacio Lojolacuac di-  
ño Bandera bi daueaguzala munduan; bata Jesu-  
cristo Jaunarena, ta bestia Luciferrena: eta Ban-  
dera oneec diriala guztiz desbardiñac, ta bata  
bestiaren contracacuac: eta orregaitic diño, jarrai-  
tuten badeutsagu Jesucristo Jaunaren Banderia-

ri, juango gariala zucen ceruco Erreñura; eta jarraituten badetsagu Luciferrenari, juango gariala artez infernucO ondarretara. Beguira bada cec icharoten deuscun, eta nor dan dirauzcuna.

Esan eguidazue orain cristianac: san Ignacio andijac badiraucen esan dodana, znoren Banderiari jarraitu biar detsagu? ¿Jesucristo Jaunarenari ala Luciferrenari? ¡O Jesus benegarrijal emon eguiguzu guztijoi ceure gracia, jarraitu deijogun cerua emongo deuscun ceure Bandera ederrari. Orregaitie bada, salbeu nai badoguz gueure arimac, izan gaitian Jesucristo Jaunaren ortu edo jardinigo lora ederrac alde guztijetarie uzain gozua zabalduco dogunac; gúe bere eguneeu baten jantzi daigun ceru ederra beste ascoc jantzi dabeen moduan: eta ez fede bacuac edo zozpaligartuaren entzecuac, infernucO suari su guijago emongo deutsagunac.

## XVIII.

### **Erredentoria mundura etorri baño, aurreracuac.**

Jesucristo Jauna muudu onetara etori baño aurrerauco guizonac; Jaungoico eguijazco bacar baten legue santia gorde eta bere barruan bieci

gura ebeenac; icusiric euren erreligiño santia nas-  
tauta egoala (oraiñ leguez izango zan) aimbeste  
erreligiño falsogaz, erregututen eutseen Jaungoi-  
coari oraciño ta sacrificiño ascoren bitartez bialdu  
leijuela aibat lasterren mundura Mesias edo  
Erredentoria.

Aiñ egoan dempora atan naste andija erreligi-  
ñoian cé ija ez-equijeen ceñeri jarraitu Jaungoi-  
coaren legue santia gorde gura ebeenac: orregai-  
tie cuqueen oneee gurari edo aiñ desio andija  
munduco Salbaguilliena, equijelaco onee ecarrico  
ebana cerutic lurrera erreligiño eguijazco bacarra  
ceñegaz salbeu gura citubezan euren arimac.

Jaungoicoac izentau cituzan leleengo eguneric,  
dempora guztijac: auda; aiñ demporaric dempo-  
rara cerjazoco zan, eta cer jazoco dan: orregaitie  
bada, demporia bete zanian, bialdu eban cerutic  
mundu onetara bere seme bacarra eracusteco gu-  
ri cer eguiñ biar dogun irabazteco cerua. Esan  
eguidazue oraiñ erreligiño eguijazcoa cein dan  
ez daquizuela diñozuen guizonac; ¿ecarrico eban  
gure Salbaguilliac cerutic lurrera erreligiño egui-  
jazco bacar bat baño besteric? Ez. Jaungoicoac  
bera Jaungoico eguijazco bacar bat dan leguez,  
emon deuscu guztijoi erreligiño eguijazco bacar  
bat: cein dan Jesucristo Jaunac eracusten deus-  
cuna bere eleissa santiaren bitartez.

Esan dot ez dagoala erreligiño eguijazco bacar  
bat baño besteric, eta bacarric erreligiño onetan  
salbeuco diriala gure arimac. ¡Cristiñauac! bada

ezpadago erreligiño eguijazco bacar bat baño besc-  
teric, cein dan Jesucristoc cerutic ecarri euscuna.  
¿celan dagoz guizonac diñuenac erreligiño guzti-  
jetan salbeu guñiaitezala? Modu orretan berba  
eguitiac ¿ez dau esan gura ouarc daquijela Jaun-  
goicoaren beste edo gnejago guizonac cer eguiñ  
biar dabeen arimac salbetaco? ¡Jaunal erruquitu  
zaitex guizon oneecaz.

Guizon fede bacuac: izan bazan eta balitz zu-  
bec diñozuen moduan erreligiño guztijetan gui-  
zoneen arimac salbetia, ¿cer dala ta bialdu eban  
Jaungoicoac mundura gueure Salbaguillia? ¿Len-  
go bestian gü gueratuteco? ¡O guizon ichuac! us-  
te badozue ceuben pentsetaco moduagaz cerua  
irabazia, erracuntza andijan bici zaree. Cerua  
irabaci gura dabena, gorde biar ditu Jaungoico-  
aren legueco mandamentu santuac, eta eleissa  
Ama santiaren mandamentuac, beste gauza bat-  
zuen artian.

Ondo equijen Jesucristo Jaunac aguertuco ci-  
riana munduan cristiñauen artian Apostolu fal-  
suac, cristiñau izenagaz: baña esan eban; éz en-  
tzun eta éz jaramonic eguiñ, olango guizonai: ja-  
rraitu eguizue zube (1) neure doctrina santia, ta  
salbeuco zarree.

Icusi daigun oraiñ cer dirauseuen eleissa Ama  
santiaren mandamentuac.

«Lelengo mandamentuac dirauseu, Domeca  
eta jai gordetacuetan meza osoa entzuteco; ba-

(1) Cristiñan benetaonac.

ña..... éz edoceiñ modutan, ezpada Jaungoicoac meresidu daben errespeto ta beneraciño guztijagaz; dalaco meza santia, Jesucristo Jaunaren pasino santiaren irudija; orregaitic bada, egoten ez pagara meza bitartian errespeto ta debociño andijagaz, contu eiztua artungo deuscu errazoiagaz gueure Jesus bildots mansuac: bada badaquigu cer egioban gú gaitic.

«Bigarrenac, urtian beñ guichijenez Confesetaco; baña lenaco illteco arriscurric balego, Comulgauco badau.

«Irugarrenac, Pasco garizumacoz Comulguetaco

«Laugarrenac, eleissa Ama santia aguiñduten dabenian beruac eguiteco. Berba bi emen. Dagoz personac diñuenac; ¡Jesus! ezda posible edo ecin izan leiteque nic bareu eguitia; nai neuque bareu eguiñ, baña ciur daquit izango lichatena neure osasunaren cultian. Ez dot ezango orrela izango ez dala, daquidalaco dagozana porsonac ori jazoten jaqueenac; baña alan da guzti bere cristiñau onac eguiñ biar dabena dá noborenez escubidia artu baga bareuric éz eguiteco, egon Medicu edo Osaguilla Jaunagaz, eta esan argui Jaun oneri cer igaroten jacun. Esaten badeuscu bareuric éz eguiteco, ez eguiñ; ta egon ardura bagaric.

Jaquiñ eguizue cristiñauac, gure eleissa santia guztiz samurra dala, baña ez iñor engañau ez dan gauziagaz: orrela balitzate, gueure buruac engañauco guenduquez. Esan daigun bada beti



eguija, gneure arimai juaqueen gauceetan: güc engañau guñai Osagailla Jauna, baita bere Confesore Jauna, bafia Jaungoicoa, secula bere éz.

«Bostgarrenac, paguetaco amarreenac edo zor deutzaguna, Jaungoicoaren cleissari. Beguira bada cristiñauac ceinchue dirian Jesucristo Jaunaren eleissa Ama santia aguiñduten deuscuzan gauzac pecatu mortalen beian eguiñ biar doguzanac.

Orañ bada; jaquiñ gura dabenac gauza oneen gañian gueijago, irucurri bei Aita Asteten liburu edo cristiñau doctriñaco cartillia.

Ieusi daigun orañ cer diñuen Apostolu falsuac, esan dodazan gauzeen gañian. Oneec diñue; cerua irabazteco ez daucagu mezia entzun biarrie, ezda bere Jesucristoren eleissiac dirauzcuzan beste gauzac eguiñ biarrie. Cristiñauac; ara emen gauza bi guttiz desbardiñac: Jesucristo Jaunac dirauzcu; eguiten badozue nire esana, emongo deusuet ceruco gloriya: eta Jesucristoren arerijua deñue irabaci leique cerua Jesucristoren eleissiac dirauzcuna eguiñ baga bere. Onegaz esan gura dabe, erreligiño guttijetan salbeu leitequiela guizona. ¡O Lucifer condenadual jaquiñ izan bacendu, edo gomutau izan bacendu ceibat arima galduco cenduzan ceure gurari deungue Jaungoicoaren beste izan gura izatiagaz, ez dauquit cer eguiñgo cenduban.

Cristiñauac: esan dodazan gauzac, ¿nori sinistu biar deutzaguz? ¿Cerua emon aldouscunari,

ala emon ecin aldeuscunari? Uste dot esango dozuela, cerua emon aldeuscunari. Orregaitie bada, Jesucristo Jauna dan leguez bacarric cerua emon aldeuscuna, eguiñ biar dogu bere esana.

Azquenez: Jesucristo Jaunaren arerijuac diñue cé erreligiño guztijetan salbeu leitequezala guizoneen arimac: baña..... gúe cristiñau Catolicu Apostolicu Erromanuac ucatuten dogu ori, Jesucristo Jaunaren agotic. Orregaitie bada. ezda salbeuco guizona bere eguitade guztijetan santu bat badirudi bere, ilten ezpada Jesucristo Jaunaren eleissa santiaren barruan; au da; esan da daucadan leguez, eleissa santa onen ezaugueria badauco.

Guizon fede bacuac: subec diñozue erreligiño guztijetan salbeu leitequezala guizoneen arimac: bada orrela uste badozue, ¿cergaitie éz zatoze Jesucristoren eleissa santara? ¿Egon leiteque zoraquerija andijagoric jaquiñ ezquero ciur Jesucristoren erreligiñoian salbeuco gariana (alan diñozue) bera ganic alde eguiñ da egotia baño? Ez. ¡O guizon errucarijac! gomutau eguizue puscabat obeto cerua irabaci gura badozue, centzuna guztiz galduta ezpadaucazue.

Beguiratu eguijozue ondo erreligiño guztijai nundie etorri dirian, eta ciur etorrice zarreena erreligiño eguijazcora.

¡Guizon sinisquera bacuael eguijaz dirautsuet; iracurric bacendugueez Jesucristo Jaunaren bicitzaco liburu sagraduac, eta entzungo bacendu-

quee Jaungoicoaren berbia bere ministroen agotie, beriala biurtueo eññataze Jesus ona gana beste dempora baten orain zubez leguez pentsetan ebeenac biurtu cirian moduan. Orregaitie bada, salbeu nai badozuez ceuben arimac, erdueze Birgiña Marijaren bitartez bere seme Jaungoicoa gana cein dan guztijoen. Aita ona.

### XIX.

#### **Ez dago erreligiño eguijazco bat baño besteric.**

Libre-pentsadore Jaunac: icusi dozue celan Jaungoicoac emon ez deutsan guizonari erreligiño eguijazco bacar bat baño besteric; eta esan leique erreligiño oneen asieria izan zala paradisuan.

Mundu guztijac daqui celan Jaungoicoac paradisuan debecau edo galoroso cutseen Adan eta Ebari aifñ arbolataco frutia jatia. Beguira bada emen Jaungoicoaren legue santiaren asieria: bafia infernucio Diabruac ecin icusi izan eban leguez áu esaten dan moduan begui onacaz, aguertu jaccan Ebari paradisuan Sierpiaren irudijan ta engañau eban Eba guzurragaz, esaten cutsela: Eba; jan eguizu bildur бага Jaungoicoac debecau

deutsun arbolaco frutia, ta izago zaree bere beste. ¡O guzur condenadual Adan eta Ebari aín pecatu andija eraguiñ ceutseena.

Sinisturic Ebac infernucio Sierpe edo Suque deunguiac esan cutsana, jan eban fruta debecata euquena ta emon eutsan jaten bere Senarrari jaramonic eguiñ bago Jaungoicoaren esanari. ¡O ordu zorigaistocua! Adan ta Ebari eta euren seme guztijai aín negar asco eraguiñ ceuntseena, eta eraguiñgo deutzazuena.

Eta..... ¿éé castigu emon eutseen Jaungoicoac Adan eta Ebari paradisuan eguieben pecatua gaitic? Bota cituban paradisitico canpora, ta condenau cituban betico biarrera; eta inos illbiar ez ebeenac, gueratu cirian eriotziaren menpian: bafia ez bacarric curac, baita bere euren seme edo eurac ganic etorrico cirian guztijac. Orra bada guzuraren frutua.

Esan eguidazue oraiñ iracurla meitiac; ¿nundic etorri zan guzurra mundura? Infernutic; guero guzurra infernucioa da, eta éz cerucoa. Azque nez; jaquiñ gura dituzanac gauza oncec ondo, iracurri bei Fleurija derichon liburuba.

XX.

**Munduco Erredentoria.**

Jaungoicoac aguiñdu eutsan munduari Erredentore bat, Adan eta Ebac paradisuan eguieben pecatua gaitie: eta Jaungoicoaren berbiac iños faltau ecin leiguian leguez, bete edo cumplidu zan bere berbia.

1889 urte dira aguertu zala mundu onetara eguzqui arguija, munduari emoteco arguitasun eguijazco edo izate barrija: eta au izan zan Jesucristo gueure Jauna ecin jatzi zan cerutie lurrera bere Aita beticoaren gracia guztijacaz, gure arimac salbetaco. Emen esango dau benturaz libre-pentsadorian batec; ¿nundira bada gracia orreec? ¿Nun dirian? Jesucristo Jaunaren eleissa santan, ceñen buru dan Aita santu Erromaco Leon XIII garrena.

Jesucristo Jaunac cerura igon biar eban aurrian mundu onetarie, izentau eban san Pedro Apostolua bere eleissiarene buru; ceñen menpian gueratu cirian beste Apostolu guztijac, Jesucristorene aguiñduz: orregaitie bada, bere burua cristiañauzat dauean guztijac, eguiñ biar dau doctriñaco gauzetan pecatu mortales beian Aita santuaren aguiñdua.

Gauza fedecua da Aita santuac utsic ecin eguiñ leijena doctriñaco gaucetan; eta áu ecin imiñi guinaique secula bere dudán; cergaitic izango licha-telaco federic ez euquitia: ezpada, esan eguidazue; ¿celan beteco ezoban Jesucristo Jaun eta Jaungoicoac san Pedro Apostolua bere gracia guztijacaz utsic eguiñ ez leijan bere doctriñaco gauzeetan? ¡Ol Jaungoicoac ecin imiñi euquian bere lecuan munduan utsic izango eban guizonic, bere doctriña santiaren gañian: orregaitic sinistu biar dogu san Pedroric arresquero izan dirian ta munduaren azquenerarte izango dirian Aita santu guztijac, izan dabeela ta izango dabeela utsic eguiñ ez deijeen Jesucristoren doctriña eguijazcuagan, Espiritu-Santuaren gracia: onela dauca emon da eleissa santiac bere epai edo erechija Aita san Pio IX garrenen menpian. Orregaitic da Aita santua doctriñiaren gañian, Imfaliblia edo utsic ecin eguiñ leijena: au da articulu fedecua peccatu mortalen beian sinistu biar doguna. Ez dago bada gauza onen gañian, cetan berba gueijago eguiñ; cergaitic beñ emon daben ezquero Jesucristo Jaunaren eleissa santiac bere epaija, amaitu dá guztija. Atera bada bacoach noberen contuac.

## XXI.

### **Aita santu Erromacua, Jesucristo Jaunaren eleisiaren buru.**

Ara emen Aita santu Erromacua Jesucristo Jaunaren escubide guztijacaz, bere doctrina santiaren gafiari. Orregaitic da Aita santua dudari baga, cristiñau justioen artzain nagosija: orregaitic bada, cristiñauoc eguiñ biar dogu bere esana doctrinaco gauzeetan, beguijac ichi ta burua macurtuta: au eguiñ biar dogun ejemplua emoten deuseue Obispo Jaunac, eta Jaungoicoagana consagrauta dagozan beste Sacerdote jaquitun quztijac gúe baño obeto Jaungoicoaren gauzac celan izan biar dabeen daquiyeenac.

### **Sacerdote Jaunac, ta euren feligresac.**

Sacerdote Catholicuac dauque obligaciñoia iracasteco euren feligresai, (eta oneec icasteco) Jesucristo Jaunaren doctrina santia: baita bere dauque obligaciñoia aldeijeen contra guztija eguitico Jesucristoren contraco doctrinai, nastau ez deitezan euren feligresac doctrina erracuntza-

cucacaz. Obligaciño áu dauquee Sacerdote Jaunac Jesucristo Jounaren asarrian beian. Esan eguidazue oraiñ libre-pentsadore Jaunac; izanic esan dodan leguez, ¿celan egongo dira issillie Jesucristo Jaunaren ministruc icusirie zuben doctrina erracuntzacuac? Bada ¿cer nai dozue? ¿Zabaldueuben doctrina deungae alde guztijetarie arima ascoren caltian, eta Sacerdote Jaunac egon deitezala issillie chacur mutuac leguez? ¡O! ez-eguzue escatu ecin izan leiquian gauzaric. Sacerdotiac ez duaz imiñten euren arimac condenetaco arriscuan, zuben doctrinai jaramonic eguiñ eza-gaitic.

Libre-pentsadore Jaunac: ¿nor da aguiñduten deutseena Sacerdotiai zuben doctrinai contra eguiteco? Jesucristo Jauna: bada ez dauquee erre-medijoric; eguin biar dabe bere aguiñdua.

¿Cer diñozue oraiñ Jesucristo Jauna ganic alde eguiñ-da zagozeen guizonac? Zubec diñozue Sacerdotiac (eta sacerdote ez dirianac) gorroto andija deutsuela, ceuben doctrinai contra eguiten deutseclaco; baña diñot nic ez dala ori eguija; eta modu orretan uste badozue, erracuntza andijan zagozee. Ez deutsue gorrotoric Sacerdote Jaunac; eta bai amodijo ta caridade andija: orregaitic bada, icusten zaituezan leguez bide oquerrian, nai ditubez ecarri zuben arimac bide zucnera. Diñot bada beste bein ez deutsuela gorrotoric Sacerdote Jaunac, ez Sacerdote ez dirianac; baleusquizue gorrotoa zubec uste dozuon leguez,



ez leusquizue jaramonic eguiñgo icusiarren zabiltzezan bide oquerrian esanaz; ¿cé ardura deuscu guri infernura juan gura badabe euren doctrina deungacaz? Onelan berba eguiñgo balebe, orduan izango litzate zubei gorrotoa euquitia, edo zuben arimeen erruquiric ez euquitia: bafia... ez dabe secula modu orretan berba eguiñgo Jesucristo Jaunaren ministroac, icusten ditubezalaco zubezan euren anaijac Jesucristogan. ¿Cer bada? Orañ egonarren zubez Jesus onaganic alde eguiñ da, ¿ecin etorri ciñaiteze bijar bera gana parca escatuta? Eta... ¿cergaitic éz? ¿Ez doguz icusi Jesucristo Jaunaren arerijo andijac izan cirianac san Pablo Apostolua, san Agustin andija, san Cipriano jaquituna, eta beste oneec langoasco egun bateric bestera bera gana biurtuta? Eta zubez, ¿ecin eguiñ ciñaijee beste orren beste bere gracijagaz? Millagro andijagoric icusico da benturaz, san Antonioren bicitza ederrian.

Libre-pentsadore Jaunac: esan dodan guztijari beguiratuten deutsee Jesucristoren ministruc: orregaitic beguiratu biar deutzazue Jaun onei meresidu dabeen errespeto guztijagaz ezpada beste gaitic, Jaungoicoaren ministroar izana gaitic.

Emen esango dau benturaz euscaldunan batec pentsauric libre-pentsadoriac gaitic diñodazan gauzac, bacarric balira leguez euscaldunac gaitic; ¡Jesus! ¿Añ libro-pentsadore asco dagoz euscalerrijan modu onetan esribitzeco? ¡O euscaldun

maitiac! ez daquit nie guichi edo asco dagozan; (ez dot uste asco egongo dirianic) baña badaquize gauzac asieria biar izaten dabecna.

Icusi dira euscal-errijan erbestetaar libre-pent-sadoriac predicau ditubezanac erri onetan, euren doctrinac; (Jesucristoren contraeua) eta icuston dogunez frutu apurren bat atera biar izan dabecnac; diñot áu idigui ebelaco Bilbon Escola laique bat, 1887 garren urtian. ¡O neure erri maitia! ¿Cec ecarri zaitu izate onetara? ¿Gueure pecatuac? Izan leiteque. ¡Jaunal erruquitu zaitetz gugaz.

Eta... ¿cer esango dogu cristifiauae diriala diñuen asco gaitic? Orra bere elduco gara Jaungoicoaren gracijagaz.

## XXII.

### Munduac jaquituntzat daucazan guizonac.

Penaz beteric diñot, erruqui izateco diriala guizon asco ceñchubec daucazan munduac jaquituntzat; eta ecin ucatu leique; jaquitunac dira. Emen itanduco dan benturaz bat edo bestec; eta ¿nortzue dira guizon orreec? Jesucristo Jaunaren arerijuac. Baña... ¿cer baliyo deutsee onei izanarren izar igarla andijac, Medicu edo Osaguilla

andijac, contulari eta asmu andijetacuac, ta azquenez asmauco balebe bere eraña gueraturic ez daucana Jesucristo Jaunaren legue santia gordetan ezpadabe? ¿Cer balijo deutsee diñot olango guizonai illda guero eguiten deutseezan entierruac, eta euren sepultura edo estal-lecura eruatent deutseezan aro edo coroe ta lora ederrac, Jesucristo Jaunaren berbiac faltau ecin baleique cein dan nigaz ez dagoana ezda sartungo cerueo Erreñuan? Ecer bere éz: bacarric izango dira jaquitunac munduarentzat, bafia ez euren arimentzat.

Guizon fede bacuac: gomutau eguizue ondo, ta icusico dozue celan Jesucristo Jauna dan jaquiturijaren jaquituriya, eta guizonac euqui aldejeen jaquituriya apurra bera ganic jatorqueela: orregaitic pentsau biar dabe guizonac puscabat, eta esan euren artian soberbijari ichita. ¿Cer gara gü edo cer daquigu güc? Ecer bere ez. Ez daquigu aste bete barru, egun bete edo ordu bete barru cer jazoco jacun. Ez daquigu bijar illgo bagara, ez gaur illgo bagara. ¿Cer daquigu bada güc? Ecer bere éz. Anda guizonac pentsau biar dabena, ta esan guero; ¿nor da bada guztija daquijana? Jesucristo Jaun eta Jaungoicoa.

Urten eguizue bada erracuntzaco bide orretaric, eta biurtu zaiteze fede bici bategaz Jesucristoren eleissa santara. Orrela eguiten badozue, orduan izango zarec guizon jaquitunac ez bacarric munduarentzat, baita bere ceuben arimeentzat.

## XXIII.

**Erregua Jesusi, bere arer:juac gaitic.**

Neure Jesucristo Jauna: Jaungoico eta guizon eguijazcua. Erruquitu zaitez ceure arer:ijo guztijacaz, ta emon eguijozue adinaico arguitasuna eta ceure gracia icusi edo ezagutu deijeen céu zariala guztijoen Aita, eta guztijoc gaitic emon cenduala Calbarijoco mendijan curutze santian josiric ceure odol ta bicitza preciosua. ¡Bai Jesus lastanal curutze santa atan emon cenduban eracutsija celan zarian guztijoen Salbaguillia, eta celan orreiszegaitic artu cenduzan gure pecatuac ceure gañian gure arimac salbetia gaitic: orregaitic esan ceuntsan ceure Aita cerucoari ill biar cenduban aurrian; ¡Aita! parcatu eguijozue nire arer:juari, bada ez daquije cer eguiten dabeen. Guizon fede bacuac; ¿eguiieuquian gueure Jesus maitiac gú gaitic, eguieban baño gueijago? Ceubec pentsau.

la bada Jesucristo Jauna ganic alde eguiñ-dazagozeen guizonac: badaquize gueure Jesus ona beti dabillena pecatarijaen billa; orretaraco etorri zan mundu onetara. Balego bada zuben artian iflor bera gana biurtu gura dabenic, escatu eguijozue berari emon deizuela orretaraco bere gracia

ja: eta zuben escapidia bada fede onagaz, ciur izango dozue. Jaquiñ eguizue bada celan oraif arte ichi ez deutseen eta ichico ez deutseen bere gracia emon bagaric, bera gana biurtu gura da- been pecatarijai.

Eta... ¿celan asico gara escatuten Jesucristo Jaunari bera gana biurtuteco gracia? Ara emen; eldu zaiteze fedez beteric bera josiric dagoan curutze santa baten aurrera, ta auspezturic bere ofietan, errezaue eguizue debociño andi bategaz Credo bat: au eguifñic eldu ezpada bere gracia zuben bictzetara, eldu zaiteze bere Ama Birgüña Marijaren irudi baten aurrera ta jarriric belauni- co, errezaue eguijozuez debociño eta amodijoz beteric, iru abemarija ta salbe bat: au eguiten badozue, ez deutsue ichico Jesus onac emon ba- ga bere gracia. Alan izan dedilla.

## XXIV.

### Illda guero, ezdago ecer.

Icaratú eta larrituta gueratuten-da gaureo egu- nian cristifñau ona, entzuten dirian gauzacaz: ba- da dagoz guizonac cristifñauac diriala diñuenac, esaten dabeenac: guizonac; Abadien eta Fraillien asmu guzurrazcuai jaramonic eguifñi bage, jau

eta edan daigun ta olgau gaitian aldogun ondoen, mundu onetan bici garian artian; illda guero, éz dago ecer. ¡O cristiñau cifizua! ¿Cer derichezue esan dodanari? Nic diñodana da cé guisa orretan berba eguiten dabeen guizonac, ez dauqueela Jesucristo Jaunaren ez arimiaren sinisqueraric, ezda bere fedian apurric: bestela ¿celan berba oguiño leuquee modu orretan? Itandu eguijozue guero orrela berba eguiten dabeen guisonai cer dirian erreligiñoian, ta erantzungo deutsue esaten dan leguez munduco gatz guztijagaz cristiñauac diriala; eta eztututen badozue cerbait, edo imifiten badozue dudan euren cristiñautasuna, beriala esungo deutsue Catolicuac diriala Aita santuaren beste; obac diriala ezpadiñue. ¡O guenre Aita santu maitia! gauza asco entzun biar dira gaureo egunian mundu onetan, entzun biar ezlichatezanac: bafia ¿celan izango-da? Gueijago entzun cituzan Jesucristo Jaunac berorren santidadiac ondo daquijen moduan.

Aita santu beneragarrija: ¿cer eguifi biar dogu orañ guizon orreec gaitic? Erregutu Jaungoicoari berorregaz batera, eta escatu arguitu deijueza la euren adiañac iraundu ez deijeen gueijago biar ez dala, euren Aita ona.

Ezdaquit nic celan dagozan guizonac difiue nac, illda guero ez dagoala ecer: onclan berba eguiten dabeenac, ecin cuqui leijee len esan dodan lequez sinisqueraric, ez arimianic, ez cerua-

nie, az infernuanic. ¡Neure Jsus amorosua! bada... ¿etzimian jatsi zú cerutic lurrera gure arimac salbetaco? Duduric baga: eta ¿celan dagoz guizonac euren buruac cristinautzat dauqueezanac, aiti deungaro berba eguiten dabeenac? Ezdaquit.

Illda guero ez dagoala ecer; baña esan eguidazue modu orretan berba eguiten dozuen guizonac; ¿noc ecarri deutsue barri ori? Inoc bere ez esango dozue: bada ecarri ezpadeutsue inoc, ¿celan azartuten zaree orrela berbeetan fedeco aiti gauza andijaren gañian? Guizon fede bacuac; jaquin eguizue arima bana daucagula; eta bacenquije ceimbat gura deutseen guere Aita Jaungoicoac arima onei, etzenduquee modu orretan berba eguingo: bada esan leique Jaungoicoac gura deutseela gure arimai, berac berari gura deutsan beste: emen esango dozue benturaz; baña... ¿celan izan leitoque ori? Bere semiac gari-laco.

Imini daigun Aita on batec salben eutsala bicija bere seme bateri bere bicitciaren costuz; esan gura dot; Aita ill zala bere semiari bicija salbetia gaitic, beguiratu baga bere bicija iminuten ebala galtzeeco arriscuan: esan eguidazue orain; ¿cer esango guneunque Aita onegaitic? Esango guneunque semiari gura izan eutsala berac berari gura izan eutsan beste. Guizon fede bacuac; beste orren beste eta gueijago egueiban bere semiacaz, guere Aita Jesucristo Jaunac: bada ieusi gueduzan illteco edo condenetaco arriscuan, eta jatsi-

zan cerutic lurrera, ta salbeu gaituz bere bici ederraren costuz. Ondo dago: eta ¿cergaitic eguieban Jesucristo Jaunac sacrificio ori? Gure arimac ceruraco irabaztia gaitic: guero... ceruac gauza ederrac izan biar dau; dudaric baga: gúc gemutau edo pentsau ecin guñaijan langua.

Gauza bat jatort emen gogora. Icusi dituguz aurtengo urtian 1889 garrenian Parisco Esposiciona edo gauzeen icus-lecura jua da etorri dirian guizonac, celan etorri dirian guztiz miraritura an icusi ditubezan gauza ederracaz: bada miraritu badira orren bestian guizon onccc, edo aiañ gauza mirari gurrijac badira guizonac eguifñ ditubezan gauzac, ¿celanguac izango dira Jaungoicoac ceruan imifñic daucazanac bertara duazan arimeentzat?

Cristiñauac zareela diñozuenac fedia guztiz illda ezpadaucacue, pentsau eguizue puscabat esan dodazan gauzeen gañian; eta ezpadituez betetan zuben biotzac, edo aifñchat artu gura ezpadozuez, guazan ondiño beste gauza batera.

Jesucristo Jaunaren eleissaco liburu sagraduac diraucue, celan Jaungoicoac eguifñ cituzan cerua ta infernua: (baita bere purgatorijo edo garbi lecuara ara duazan arimac cerura jua orduraco gueratu deitezan edurra leguez zuri edo garbi) cerua, bere legue edo mandamentu santuac gorde dituzanentzat; eta infernua, gorde ez dituzanentzat. Beguira bada illda guero ez dagoala ecer diñozuenoc celan dagozan Jaungoicoac eguifñ da,



cerua, infernua, ta purgatorijua: eta sinisquera  
au euqueen Jesucristo mundura etorri basio  
aurrerauco guizonac. Guero... cerua, infernua, ta  
purgatorijua, éz dira Abadiac éz Frailliac euren  
guzurracaz asmau ditubezan gauzac; eta bai len  
esan dodan leguez, Jaungoicoac eguiñ cituzanac.  
Alperrie ibillico da esan dodana guzurtu gura  
daben guizona: bada éz uste izan cerua ta infer-  
nua aínchíña eguiñac izanarren ecerezian guera-  
tu diriala. Jaquiñ eguizue infernua aín barri da-  
goala gaur, cein Lucifer eta berari jarraitu eut-  
seen aíngueru deungac Jaungoicoac bertara bota  
cituzan egunian: eta cerua, aín barri cein Luci-  
ferreri jarraitu ez eutseen aíngueru onac bertan  
gueratu cikian egunian: eta bardiñ egongo dira,  
Eternidade guztijan. Au sinistu gura ezpadozue  
illda guero ez dagoala ecer diñozuenoc, erruqui  
zaituedaz; eta au dirautsuet pena andijagaz.

Cristiñau leijalac: icusi dozue celan esan do-  
dan Jaungoicoac gure arimai gura deutseela be-  
rac berari gura deutsan beste: orregaitic bada,  
esan badot onegaz esan biar ez neban gauzaren  
bat, izan dedilla éz esantzat; bada ez-dot iraundu  
gura ezetan bere daquidala ez ezdaquidala, gucu-  
ro Aita Jaungoico maitia.

---

## XXV.

**Gú cristiñauac gara.**

Dagoz munduan guizonac diñuenac: gú gara Cristiñau Catholicu Apostolicu Erromanuac: cein dan esango halebe leguez: gú Jesucristoren semiac gara, eta bere eleissa santiaren barruan bici gara. Baña... ¡O cristiñau ciñzuac! asi bediz oneec lango asco berbeetan erreligiñoian eta erreligiosuan gañian eta agur euren cristiñautasuna: erreligiñoian bada, Confesiñoia Abadiac eta Frailliac asmama da; bareuac badira, Abadiac, Frailliac, eta beata chochac eguiñ biar ditubezannac dira. Doctriña bada, umientzaco bacarric dala; eta ez daquit nic cer beste gauza. Erreligiosuac gaitic bada, (emen dira chimistac eta truboiac) mundu guztija illumpian euqui gura dabeenac diriala; iñoren lepotic bici gura dabeen alper batzuc diriala, eta euren sermoiacaz gentia engañetan dabiltzala; eta... ¿cer beste gauzaric? Eurac gura dabeen guztija. Onez gañera ecer ezpaltiz leguez, Blasfemijac, berba esañac, eta birau icaragarrijac: esan leique bada, ez dagozula ondo, Jaungoicoa modu batera edo bestera iraunduten ez dagozanian. (Guero izango dira contuac) Cristiñauac zareela diñozuenuac; ¿ori da cristiñau izatia? Ez.

Cristiñau eguijazcuac ez dau secula berba deungaro eguiñ biar éz erreligiñoia gaitie, ez erreligiosuac gaitie. Erreligiñoia da, Jesucristo Jaun eta Jaungoicoac imiñi deuscuna; eta erreligioso edo Sacerdotiac dira bere ministroac, ceruco bidia eracusten deuscuenac. Orregaitie bada, cristiñau benetacuac euqui biar deutsee errespeto eta beneraciño andija erreligiñoiari, ta erreligiosuai: bestelan ecin izan guiñatez cristiñau onac.

¡Neure Jesus maitial ez daquie nic celan iraunduten zaitubezan aimestian cristiñauac diriala diñuenac izanic zú aifi ona: olango cristiñauai itandu biar deutseet; Erregue Jaunaren aurrian, ¿esango cenduquee bera iraunduteco berba moduric? Uste dot zoratuta egon esic ezetz; eta ori ¿cergailic? Berac emon al-leizuen castigua gaitie; au da eguija: bada aifñ billdur andija edo errespeto andija badeutsazue Erregue bateri, (euqui biar jacan leguez) ¿celan ez deutsazue billdurric ez errespetoric Jaungoicoari izanic Erregue guztijeen Erreguia? ¿Aifñ ona dalaco?

Jaquifñ eguizue Jaungoicoa modu orretan iraunduten dozuen cristiñauac, (baita cristiñau etzarecnac). Erregue iraundu batec bera iraundu daben bateri emongo leusquijon castigua izango balitzate justua, justuaua izango dala Jaungoicoac emongo deutseena bera iraunduten dabenai, bera dalaco guztijoen Aita; eta semiac ez dauqueelaco erruzoiric euren Aita Jaungoicoa izanic aifñ ona, ezetan bere iraunduteco.

Emen esango dau benturaz bat edo bestec; bafia ¿cergaz irauinduten dogu Jaungoicoa? ¿Cergaz irauinduten dozuen diñozue? Asi bera ganic eta bere eleissaco ministro guztijac gaitie deungaro berba eguifagaz: ¿ez da áu eguija?

Berba bi Jesucristo Jaunaren ministroen ganian. Uste dot nie eleissaco guraso guztijac betetan ditubezala, euren obligaciñoco gauzac; au eguiñgo ez dabenic guichi edo bat ez da egongo: bafia balego bat edo beste onetan faltetan dabenic, erregutu daijogun Jaungoicoari emon deijuela adiñaco arguitasuna eta gracia aurrerantzian ezetan faltan ez deijeen.

Izanic bada Sacerdote Jaunac, euren obligaciñoco gauzac betetan ditubezanac, ¿celan cristiñauac diriala diñuen ascoc aifi charto berba eguiten dabe Jaun oneec gaitie? ¿Ez doguz icusten Jaungoicoari eta projimoari deutseen amodijo andija gaitie celan duazan Jesuite ta Fraille misiolari Jaunac (eta beste Sacerdote guztijac biar balichate) erri urructara aimbeste neque igaroten Jesucristo Jaunarentzat arimac irabazia gaitie? ¿Ez doguz icusten diñot misiolari Jaunac, (santuac obeto esan leique) African, American, Chifian eta beste erri urrun ascotan salbaje artian gu gucure echeotan eta beste lecu ascotan aldogun ondoen igaroten gagozan arte biar bada ordu orretan beñ bafio sarrijago icusi dan moduan salbajiaen escuctatic martirijo icaragarrija artzeen? ¿Cergaitie bada berba eguiten da aifi

deungaro Sacerdote Jaunac gaitie? ¿Jaungoicoarentzat arimac irabasten dabilzalaco? ¡Al guztioe eguiño bagnetu orrela aldogun moduan Jesucristo Jaunaren ministruae gaitie charto berba eguiñ бага, obeto izango lichate.

Errespetau daiguzan bada Jaungoicoa cerbietan eta beretzat arimac irabazten dagozan Jaunac, neque ascoren bitartez. Orrela eguiten ezpadogu, Jaungoicoac eguneen baten contu andija artungo deuseu.

Eta... ¿cergaz gueijago iraunduten dogu Jaungoicoa? Bere izen santua gaitie, bere Ama santia gaitie, ceruco santu ta gauza sagradu guztijac gaitie, eta purgatorijoco arima tristiac gaitie Blasfemia icaragarrijac esanagaz. ¿Ucatuco dozue esan dodana?

## Blasfemuai.

Cristiñauac zareela difiozuenac eta modu orretan Blasfemetan dozuenac: ¿ez daquizue purgatorijo edo garbi-ecuan aurquitu leiquezana ceuben guraso, seme alaba, anaija ta arreba, senide ta ceuben lagun maita izan cirianac, benturaz ceuben debocifiozco aita-gure bateri icharoten cerura igoteco? ¿Ori da ceuben guraso emaste eta seme maitiai ta esan dodazana deutzazuen amodijua? ¿Cer bada? ¿Ain ariñ aztu zaree eura-

caz? ¡Ol cristiñauac bazaree ez zaiteze izan aín erruqui guichicuac purgatorijoco arima tristia-  
caz: eta aurrerantzian eurac gaitie berba deungaro eguín бага, erregutu eguijozue Jaungoicoari eruban deizala aibat lasterren bere glorijara.

Errazoiagaz esaten dogu Jaungoicoaren misericordija andija dala guizona ganaco; bestelan ¿celan laquetu edo consentiduco leuque Blasfemiau deijeen bere izen santua, eta bere santuena? Misericordija ezpaleuco Jaungoicoac guizona ganaco ¿celan ichico ez leuque bertatie Blasfemuaen miñ loija castigutzat igartuta? ¡O Jaungoico laztana! emen emoten deuscuzu ceure anditasun eta pacientzija andijaren eracutsija. ¡Bai neure Aita maitia! misericordija andija daucazu ceure semientzat: baña egon bediz jaquiñen gañera zú iraunduten zaituezanac, oraiñ ezpada eguncen baten izango dabeela, merresidu dabeen castigua.

Ecín eguín leiquijo Jaungoicoari ofentsa andijagoric, Blasfemijagaz eguiten jacan baño. Blasfemija aín da motza ta icaragarrija cé esan leique esaqueria dan leguez, Blasfemiac alcantzau ta pasau eguiten ditubezala infernucó Diabru guztijac. Orregaitie bada, illten badira Blasfemiac pecatu andi orregaz, emongo deutseez Jaungoicoac peccarijeontzat daucazan castigu andijenac. Ill bedi bada seculaco, Blasfemija deunguia.

## Euscal-errijan.

Euscaldun cristiñanac: pena andijagaz diñot sarri entzuten diriala euscal-errijan Blasfemija lotsagarriac, ez bacarric erbestetarren agotic baita bere euscaldun ascoren agotic. ¡Bai euscaldun maitiac! au icusten da gaurco egunian Jaungoicoa ganic aifñ mesede asco artuten dogusan errijan. Bafia guisa orretan Jaungoicoa gaitic eta bere santuac gaitic Blasfemetan dozuenac, ¿ez daucazue goguan ceimbat mesede eguieuzcum Jaungoico altzuac 1885 garren urtian bacarric librauagaz esan leique euscal-erri guztija Colera icaragarrija ganic? Bada ¿celan gara beragaz aifñ esquer gaistocuac? Orregaitic bada, ¿izango dogu cer esanic gueuc usteric guichijen dogunian bialduten badeuscu castigüen bat gueure gañera gueure Aita Jaungoico iraunduac? Ceuben pentsau.

¡Neure erritar maitiac! ill bediz betico euscal-errijan (eta mundu guztijan) Blasfemija eta beste berba deunga guztijac, ta izan gaitian aurrerantzian esquer onecuac gueure Jaungoico onagaz aifñ mesede asco eguifñ deuscun eta eguiten deuscun azquero.

Cristiñau cñzuc: mesede bat escatuten deut suet neure biotz guztiric. Erautsi eguijozue ber-

beeta deunguia dauqueen personari, erracuntzaco bidian dabiltzala; au da; euren arimac galtzecco bidian dabiltzala: eta entzun gura ezpadituez zuben errazoiac edo conseju onac, alde eguizue eurae ganic eta escatu Jaungoicoari biurtu deitezan bide zucenera.

¡Neure Jesus maitial orra bada cer modutaco cristiñauac gagozan munduan, ceue ondo daquizun moduan.

Ondo daquit Jauna cristiñau ón asco dagozana, baña bai deungac bere: eta ¿céc eguiten ditu deungac? Federic ezac, edo fede illa euquijac. Orregaitic escatuten deutsut Jauna emon daiguzula ceure gracia biztu deitian gure fedia, modu orretan sinistu daiguzan ceure eleissa santiac eracusten deuscuzan gauza guztijac Aita santuaren bitartez.

Sarri emon deusecu Jesucristo Jaunac eracutsija, fedia euqui biar doguna: ez bacarric mundu onetan ebillenian eguiñ cituzan millagruac gaitic baita bere dempora guztijetan bere santuen bitartez eguiñ cituzanac gaitic. Onez gañera, ¿ez doguz icusten oraiñ eguiten dituzan millagro mirarigarrijac bere Ama maitiaren bitartez, Lourdezen eta beste lecu ascotan? ¿Celan bada ez daucagu federic gauza oneec icusiric? Bada ¿cer uste dogu? Jaungoicoac ecin eguiñ leiquezala millagruac? Orrela uste izatia, izango lichate bere sinisqueraric ez euquitia. Orregaitic bada, oraiñ arte euqui ezpadogu federic, edo euqui do-



gun apurra izan bada otza, aurrerantzian euqui daigun cristiñauac bagara fede bicija sinistu daiguzan Jesucristo Jaunaren eleissa santiac eracusten deusecuzan Misterijo santu guztijac: ceñchue: dirian leleengo, Encarnaciñoco Misterijua; bigarren, Trinitade santaco Misterijua; ceñchue dirian Aitã Jaungoicoa, seme Jaungoicoa, ta Espiritu-Santu Jaungoicoa: iru persona bata bestia ez dirianac, bafia Jaungoico eguijazco bat. Misterijo santu oneéc eta beste guztijac sinistuten ezpado-guz fede guztijagaz, ecin salbeu guñiaitez.

Misterijo santuac dira, Jaungoicoaren gauzac; orregaitic bada sinistu biar doguz Misterijo santu oneec, batbere ichi baga; cergaitic ichiten badogu bat sinistu baga, ez deusec ecer balijoco beste guztijac sinistuac. Sinistu daiguzan bada baten bere faltau baga.

XXVI.

ESAALDI AU ESCRIBIDU ZAN 1885 GARRENIAN,  
ESPAÑACO COLERA DEMPORAN:  
ETA URKINGUA, COLERRIAC ALDE EGUIÑ DA GUERO.

**Guerra eguiñ biar deutsagu,  
Jaungoicoari.**

Cristiñauac: ¿cer esango dogu guerra eguiñ  
biar deutseela Jaungoicoari diñuen guizonac gai-  
tic? ¿Zoratu eguiñ diriala? Ez. ¿Ichututa dagoza-  
la? Ez. ¿Cer bada? Deungatuta dagozala. Baña  
dirautseet nic guizon onei; guizonac; ¿cer atera-  
ten dozue modu orretan berba eguiñagaz? Penaz  
bete gueure Aita santu maitia eta beragaz cris-  
tiñau onac, ceubecaz erruquituta. Eta... ¿cer bes-  
teric? Baltzac sermoitic atera ebana; ecer bere éz.  
Orra bada cristiñauac nora guiño eldu dan gui-  
zon batzuben azartusana edo zoraquerija: eta  
guztija ¿cergaitic? Federic ezagaitic.

¡Ol cé eguija dan esaqueria Jaungoicoa ganic  
alde eguiñ da bici dirian guizonac, ez daquijeela  
cer esaten dabeen, ez cer eguiten dabeen: egui-

ten dabeena da, imiñi euren arimac condenetaco bidian. Baña emen esango dau benturaz oneen artecoen batec; liburuchu áu escribidu dabena, icaratu eguiñ gura gaitu gú arimeen condenaciñoiagaz. ¡O! ez uste izan olango gauzaric: ezdot uic icaratu gura iñor, ezpada imiñi gauzac arguitasun guztijagaz. Icaratu zaitubezana izango da eriotziac artuten bazaitue modu orretan, Jesucristo Jaun eta Jaungoicoa: au da; bere Tribunal santura eltzeen zareenian, berac emongo deutesuen epai odo sentencijagaz.

Guerra eguiñ biar deutsagu diñue guizon batzuc, Catholicuen Jaungoicoari: deadar deungue áu emon dabe Frantzijan, Italiyan, eta... bai ta bere gueure España erreligiosuan. ¡Cristiñauac! ¿Ez da áu Luciferrec gura izan ebana? Baña guisa orretan berba eguiten dozuen guizonac; ¿ez daquizue Catholicuen Jaungoicoa aiñchat artu gura ezpadozue bere bardiñ dala ceubena eta bere es-cuetatic iguesco ez dozuena? Guerra eguiñ biar deutsagu Jaungoicoari; baña diñot nic; ¿cergaz? ¡O guizon fede bacua! ¿Ez daquizue Jaungoicoac esaten dan leguez sigor бага castiguetan daquijana eta zubez orrela berba eguiten dozue-noe berac nai dabengan castigau ciñaijeezana? Eta castigauco bacenduqueez, ¿izango litzate charto gura deutsuelaco? Ez: ezpada ondo gura deutsuelaco; cergaitic castigu áu izango litzate, zuben arimac beretzat gura dituzalaco.

Seme batec iraunduco balcuque sarri bere

Aita, au guraso ón bat izanie, eta orregaitic Aita onec emongo baleusquijs errazoiagaz meresidu daben castigua, ¿izango lichate charto gura deutsalaco? Ez: cergaitic castigu áu izango lichate beragaz acordau dedin guijago iraundu ez daijan guraso ón bat iraundu biar ez dan moduan.

Guraso ón batec castiguetan badau seme bat bere gaistaquerijen batzue gaitic, ez uste izan charto gura deutsalaco castiguetan dabela; ezpada ondo gura deutsalaco; aurrerantzian ichi daizan gaistaquerijac, eta izan dedin ona. Beste orren beste eguiten dau gugaz gueure Aita Jaungoico onac sarri iraunduten dogunian; esan gura dot; bere cleissa santiaren ministro Jauneen esana erreligifoco, gauzeetan eguin gura ez dogunian. ¡Bai cristinu maitiael esan dodana dá eguija: orregaitic castiguetan gaituz Aita Jaungoicoac nai dabenian, edo meresidu dogunian, Colera, guerra, gose, lur-icara, eta batera esateco, berac nai daben guztijagaz. Eta ¿esango dogu orregaitic, charto gura deusculaco castiguetan gaituzala gueure Aita Jaungoicoac izanie ain ona? Ez: ezpada ondo gura deusculaco. Castiguac bialduten deuscuz lantzian bein Jaungoicoac, bere legue santia zapaldu gura dogunian, edo beragaz aztuta bici garianian: modu orretan imini daiguzan gueure arimac, ceruco bidian.

Azquenez: guerra eguin biar deutsagu dinue Jaungoicoari. ¡O guizon ichuael ichi eguijozue pentsamentu orreri Jesucristoren bost llaga sa

graduac gaitic zoratuta ezpazagoze. Beste gauza bat: eta... ¿cer gaz eguingo deutzazue guerra Jaungoicoari? Bada ¿ez daquizue Jaungoicoac baldin gura baleuque bere putz bategaz illda gueratuco cinatezana guztijoc? ¡O! centzuna guztiz galdu azpadozue, pentsau eguizue guizonua ez dala ecer Jaungoicoa ganic alde eguiñ azquero.

Guizon fede bacuac: egon zaiteze jaquiñen gainera: iracasten badeutzazue ceuben semiai ceuben doctriñac, curac izango dira ceubei guerra imiñi edo declarauco deutsuenac; cergaitic zuben doctriñac badira oraiñ Jesucristo Jaunaren contracnac lau leguez, zuben semienac izango dira ogueta lau leguez, au da; ceubec icaratu eta lotsatuta gueratuteco moduracuac. Au icusiric, atzeratu guraco dozuez edo esaten dan leguez frenuac imiñi guraco deutzazue pentsauric ceulen úle zurijai errespetua izango deutseela; bafia... ¿ce-lan errespetauco deutsee gazte súz beteric dagozanac, eta Jesucristoren erreligiño santia ezagututen ez dabecnac ceubec errespetetan ezpadozue oraiñ Aita Jaungoicoa? ¡O! gomutau eguizue ondo cer eguiten dozuen, Jesucristo Jauna ganic alde eguiñ da zagozecn guizonac: demporaz zagozee; guero izan leiteque berandu.

Emen esango dan benturaz euscalduneen bateg; ¡Jesus! ¿Celan esribidu dira liburuchu onetan olango gauzac? Bada ¿aiñ deungac gara? Ez daquit nic cer garian; onac bagara oba; bafia nic diñodana da cé nire gazte ta nmien artian, gaur-

co egunian icusi ta entzuten dirian gauzac. (Emen esango dau benturaz gaurco gaztien batec; bai aifichifiaacuac, guztijac onac).

Nire gazte demporan entzuten guenduanian birau bat persona nagosi baten agotic, igues eguiten guenduan guztiz icaratuta: eta ifios entzuten bagueuntzan birau bat jaztechuen bateri, esaten guenduan icaratuta leguez; ¡Enel cer esan dau orrec maldicifioia; infernura juan biar dau.

Emendic ateraco dozue guichi gora bera (ezdot esan gura guztijac ciriala santuac) celanguac cirian dempora ataco (1) gazte ta umiac. (Zortzi urteric, amalau infigurucoac). Esan eguidazue orain cristiñauac; ¿cer da icusten doguna ta entzuten doguna gaurco gazte ta umechuen artian? Berba lotsagarrijac eta birau icaragarrijac: eta amazortziric oguei urte ifiguruco ascoren agotic, ez bacarric birau ta canta loijac, baita bere infernucico Blasfemija deungac. Beguira bada gaurco gazte ta umechuen arguitasun edo aurreracuntzac. Orregaitic diñot ez dodala escribidu edo escribitzen liburuchu áu bacarric gaurco eguneraco, baita bere aurrerantzeraco: au da; uste badogu gú onac gariala, (ez daquit) aurrerantzian datozanac gú baño obac izan daitezcan. Baña orretaraco euqui biar dogu gurasooc gueure semiacaz ardurra andija, bestelan ez dogu ecer aurreratuco. Orregaitic bada, asten ezpadoguz gueure semiac

(1) Orain berrogueta-amar urte infiguru.

Jaungoicoaren billdur santuan, charto ibillico gara bere aurrera eldu gaitezanian. Eguiñ dai-gun bada gueure aldetie dagoan guztija uniait oitura edo izcuna charrac queentzecco módua, eta eracutsi euqui deijuela Sacerdote Jaunai ta esaten dan leguez guizon ondraduai, errespeto andija: eta igaroten dirianian euren albotie, quendu deijeela buruco chapela: au zan bada nire gazte demporan uniac eta esan leique mundu guztijac eguiten ebana.

Esan dot celan dagozan guizonac Jesueristo Jaunaren erreligifio santia zapaldu edo illundu gura dabenac; eta áu naicua czpalitz leguez difine; guerra eguiñ biar deutsagu Jaungoicoari. ¡O cristiañau maitiañ! ¿Celan egongo ezda gugaz asarratuta gueure Aita Jaungoico maitia orren bestian faltetan badeutsagu?

Ez daquit nie gueure Españañari aurtengo urtian 1885 garrenian bere gañera jausi jacan azotia Jaungoicoaren castigüen bat bada edo ez, gueure pecatuac gaitie; (guztija izan leiteque) bafia daquidana dá Erreñu onetaco probiñzija gueijenac dagozala colera icaragarrijagaz; eta gueisso áu asi zanie (April inñuruan) Garagarri-llen azqueneco egunerarte ill diriala gueisso onegaz, amalau-milla ta iru persona. Onez gañera Truizu edo Tespestate inos czagutu ez dirian languac, gueraturic curac gaitie probintzija ascotan labore gueijena galduric.

Ezda bada millagro Jaungoicoa gugaz asarre

izatia, aimbeste ofentsa eguiten deutzagun ezque-  
ro. Bada gcer eguiñ biar dogu estadu triste one-  
tan oraiñ arte libre gagozanoe coleria ganic?  
juan eleissara ta quendu gueure Aita Jaungoi-  
coari bere asarria oraciño eta erregüen bitartez  
ta escatu biotzerie librau gaizala oraiñ arte le-  
guez gueisso icaragarri orreganic.

### Guernicarrai.

Guernicaar maitiac: esan guñai güc Jaungoi-  
coac beti librau gaituzala coleria ganic; eta usle  
dot izan dala, San Roque gloriosuaren bitartez:  
orregaitie escatu biar deutzagu oraiñ bere santu  
andi oneri izan dedilla gure bitarteco Jaungoi-  
coagazco, castigau ez gaizan gueisso orregaz: ba-  
ña aurrerantzian jadetsi edo alcantzau nai bado-  
gu gracia ja au San Roque gloriosua ganic, edo  
bere bitartez, ez daigun iraundu gueijago gueure  
Aita Jaungoico ona. Eguija da neure ustez, San  
Roquec asco gura deuscuna bere onerazpeco edo  
debotuac garialaco; baña santuac izanarren Jaun-  
goicoaren aurrian andijac, gura dabeena da le-  
leengo ondrau daiguzala biar dan leguez Jaun-  
goicoa, bere Ama Birgüña Marija, ta San José  
gloriosua. Au eguiten badogu fede onagaz ta biotz  
guztiric, ceruco santu eta purgatorijoco arima  
onac izango dituguz gueure premiñetan bitarte-  
cuac, Jaungoicoa ganaco.



XXVII.

**Coleria aldenduta guero**

IZAN GAITIAN ESQUER ONECUAC.

Guernicar cinzuac: aurquituco baguiña gú araco premiña andico mesedo baten biar izanian eta jaquiñ gúc biar izan orretarie ateraco guenduquezala persona batec, ¿cer eguiño go gueunque? Eldu persona orregana, ta erregutu atera gaizala aimbat lasterren gueure premiñaco biar izanerie; au da errazoiac dirauzcuna.

Eguiñ daigun bada contu eldu gariala persona orregana aurquitu izan gariacaco premiñazco bere mesediaren biar izanian, eta eguiñ deuscula escatu deusagun mesedia. Esan eguidazue oraiñ Guernicar maitiac; escatuco baleusquigu mesedo bat gueure eztutasunerie atera gaituzan personiac, ¿cer eguiñ biarco gueunque? Uste dot esango dozuela, eguiñ aimbat lasterren eguiñ aldoguna bada; áu da; Jaungoicoa iraunduteco ezpada. Ori eguija da; eta eguiño ezpagueuzquiyo escatu deuscun mesedia, ta orrez gañera jaramonic eguiñ ez persona ón orreri, ¿cer esango leuquee

gú gaitic? Esango leuquee errazoe andijagaz esquer charrecuac gariala eta orregaitic aurquituco baguina beste beñi mesede baten premiñan, ez guenduquela meresidu inoc mesederic eguitia. Ez-gaitian bada inos izan esquer gaistocuac mesede eguiten deuscunagaz, eta emon deijogun aituten beti gagozala prest eguiteco bere aguin-  
dua bada au esan dodan leguez eguin aldogun gauzia, Jaungoicoa iraundu bage. Emen esango dau benturaz Guernicarren batec; baña... ¿cer esan gura dau onec? Esango deutsuet.

Gú aurquitu guinian aurtengo urtian 1885 garranian premiña andico mesede baten biar izanian, icusten guendualaco esaten dan leguez gueure ateetan coleria esaten deutesen gueisso icaragarrija; eta icusiric Jaungoicoac librauco guenduzala gueisso orretaric, eldu guinian fedez beteric bere eleissetara, eta echunic bere ofietan escatuten gueuntzan oraciño ta erregtien bitartez mesede eguin cigula libretia coleria ganic; eta gure oraciño ta erreguac ezpeuqueen ifdarric gueure pecatuac gaitic gugaz erruquituteco, imiñi guenduzan bere bitarteco Birginiã Marija, san Roque gloriosua, ta san Rafael aifigueru andija, eguini irurari nobena edo bederatzi urroenac.

Orain bada; izanic esan dodan leguez; ¿celan ichico eban gueure Aita Jaungoicoac entzun bage irurari, gureztat escatuco eutesen mesedia? ¡O! ecin izan ceiquian beste gauzaric.

Sarri emon deuscu Jaungoicoac eracutsija

acordau gaitian bere santuacaz; eta gura dau imifii daiguzan onec bere bitarteco gueure biar izanetan, izanic lelcengo bere Ama Birginiã maitia. ¡Bai cristinauac! Jesucristo Jaun eta Jaungoicoac dirauzcu acordau gaitiala bere eta gueure Ama biotz samurragaz, gueure premiãa guztijetan: eta onec escatuten deusana gú gaitie mercedu badogu, ez deusala secula ucatuco: onegaz esan gura deuscu bete daiguzala beraganaco daucaguzan obligaciõnoiac demporan guztijetan, bera ganic artu gura badoguz bere mesediac. Ez-gaitian bada olguetan ibilli gueure Aita Jaungoicoagaz, batian bai ta bestian ez; gueure Aita dogu eta orregaitie eguiñ biar dogu bere esana, gaur, bijar, eta munduaren azquenerarte: cergaitie beti daucagulaco bere biar izana. Orregaitie bada, aztuten bagara gueure Jaungoico onagaz sosiguz gagozarian, izan leiteque beste bere asarreco ezlutasunan baten aurquituten bagara, jaramonic guri ez eguitia. Izan gaitian bada Jaungoicoagaz esquer onecua, aiñ mesede asco eguiñ deuscu ezquero.

¿Cer beste gauzarie esan neusquize Guernicar maitiac? Emen esango dau benturaz zuben artecuen batec; ¡Jesus! ¿Ondiño cer esan gueijago dago gú gaitie? Uste izan leique ez gaitiala cristinauac. ¡O! Jaungoicoac librau neijala zubeo gaitie olango gauzarie uste izatia.

Ondo daquit Guerniqueco gentia beti izan dana (neu aimestecua ezpanaz bere) erreligio-

sua ta eleissaracua, ez bacarric Jaungoicoac bere asarria eracutsi deuscunian, baita bere eracutsi ez deuscunian: orregaitic uste dot artuten doguzala bera ganic aín mesede andijac.

Esan dot celan 1885 garren urtian librau guenduzan Jesucristo Jaun eta Jaungoicoac coleria ganic; orregaitic bada eguieuscun mesediaren ordez escatuten deuscu guri beré eguín deijogula beste mesede bat berari: eta... ¿badaquizue cein dan escatuten deuscun mesedia? Izan gaitiala cristiñau onac. ¿Cer derichezue escapide oneri? Gúc escatu gueuntzan librau guíñazala colera icaragarrija ganic, ta librau guenduzan; eta mesede onen ordez escatuten deuscu berac izan gaitiala cristiñau onac. ¡O cristiñauac! ¿Ucatuco deutsagu gueure Jesus onari escatuten deuscun mesedia? Ez: eta milla bidar éz.

Cristiñau onac izan gaitiala dirauzeu gueure Jesus amorosuac: onegaz esan gura deuscu gogoratu daigula berac cer eguieban gú gaitic. Bada... ¿cer eguieban gú gaitic? Leleengo igaro neque eta tormentu andijac, ta guero emon bere bici ederra curutzian josiric gure arimac salbetia gaitic. Beguira bada ceimbat mesede eguín deuscun eta eguiten deuscun gueure Jesus maítiaç, eta biar bada sarri ascotan meresidu ez dogula.

Ez uste izan Jesucristo Jaunac escatuten deuscun mesedia, berac preminaz biar daben mesedeen bat dala; éz dago Jesucristo Jauna gúc eguín aldeijogun mesediaren biar izanian: baca-

rric gura dau bere semiac garian azquero, eguñ daigula Aitaren aguiñdua.

Esan eguidazue oraiñ Guernicar ciñzuac: zeguiñgo dogu larreguiric Jesucristo Jauna gaitic aldogun guztija eguiñ da beré berac gú gaitic egueiban beste? Azquenez; icusi dogu ceimbat balijo izan dencuen Jaungoicoagazco gueure edo bitarteco imiñi doguzaneen oracifioiac. Orregaitic izan biar gara esquer onecuae Jaungoicoagaz, Birgiña Marijagaz, eta beste santu guztijacaz.

Gauza bat arguitu biar dot oraiñ. Nic esanrren zubei cristiñau onac bagara Jaungoicoac beti librauco gaituzala beré asarrian castigu guztijetarie, ez artu nire esana fedeco gauza bat balitz leguez: bada ez daquit nic nora guñio eldu leitequian gure cristiñautasuna edo fedia, bere castigutic libre gueratu gaitian: bafia ez ichi orregaitic seeula oracifioiari, ez escatu бага egunaro Jaungoicoari, librau gaizala gach guztijetarie: eta bialduten badeuseu nosbait castigu apurren bat, izango-da gueure peccatuac gaitic modu orretan acordau gaitian beragaz.

Gauza ona ta inñdarzua dá oracifioia Jaungoicoagazco, dempora guztijetan; bafia alan da guzti beré ez daquigu cein izango dan bere borondatia, gure eriotziaren gañian: badaquigu illbiar doguna, bafia ez daquigu nún ez cer modutan. Orregaitic bada izan biar gara cristiñau onac, Jesucristo Jaunac dirauzcun moduan: cristiñau onac bagara, ez dei jogun euqui eriotziari billdu

rric, eta izan dedilla Aita cerucoac nai daben  
langua.

## Ejemplu, edo eguitade ón bat.

Zorionecuac erriac euren Aijuntamentuco Jau-  
nac eleissaco funciñoitara duazanac: eta zorione-  
cuac milla bidar Guerniquen leguez Aijuntamen-  
tuco Jaunacas batera euren biotzac Consagrau  
deutseezanac Jesusen biotz sagraduari, eurac  
izango ditubezalaco ugari Jesus onaren gracijac.

Jaungoicoac ieusten dituzanian erriac bera  
ganaco borondate onagaz, edo amodijo andija-  
gaz, esan leique orduan betetan dituzala bere  
graciya guztijacaz, eta libretan dituzala bere asa-  
rreco castiguetarie. Euqui daigun bada onetan  
fede biei bat.

## Tridua.

Guernicar maitiac: uste dot etzareela aztuta  
egongo errionetan (Guerniquen) Jesusen biotz  
sagraduari eguiñ jaca Triduagaz (1) 1885 ga-  
rrenian: eta jaquiño dozue celan izan zan áu

(1) Iru egunian eleissaco funciñoiac.

Jaungoicoari esquerrac emoteco, libra guenduza-  
laco coleria ganic. Funciño oneec Ospatu edo Ce-  
lebrau cirian Andra-Marijaco eleissan Santisimua  
aguirijan egoala, Cemendijaren lauan, bostian,  
eta seijan. Tridu onetan leleengo errezetan zan  
errosarijo santua, eta onen ostian Sermoia. One-  
lan izan zan leleengo eta bigarren gaubian. Fun-  
ciño oneetan predicau eben, Aita san Francisco-  
ren seme umil bic: Jaun oneec izan cirian, Fray  
Luis de Arrue, eta Fray Daniel de Baertel; cein-  
chubec dirian beste asco leguez Jaungoicoac mun-  
duan iminiric daucazan aifigueruac esan leique,  
gure arimac salbetaco.

Goijan esan dodan leguez, eguiñ jaca Tridua  
Jesusen biotz sagraduari ieusi dozuen egunetan:  
eta irugarren egunian eguiñ zan eleisaco funci-  
noia goisseco amarretan, Meza Soleene eder ba-  
tegaz: eta meza santia amaituta, igon eban Pres-  
biterijora errico Cecretarijo D. Ramón de Iturbe  
Jaunac, ta iracurri eban escu-letra bat eleissan  
egozan guztijac entzuteco moduan. Escu-letra  
onec ciñuan celan erri onetaco Aijuntamentuco  
Jaunac Consagrau edo alcartuten ditubezan eu-  
ren biotzac borondate onagaz, Jesusen biotz sa-  
graduagaz; eta Aijuntamentuco Jaun oneen bo-  
rondatia edo desiua dala, eguiñ deijuen biotz sa-  
gradu oneri urtian urtian eleissaco funciño eder  
bat aurrerantzeco Aijuntamentuco Jaunac: au da;  
eleissiac bere eguna artunda daucan egunian,  
cein dan Corpustic urrengo asteco baricuan.

Ondo pentsana da; eta eguitade once ondretan ditu asco Guerniqueco Alcate D. José Marcelo de Lecanda Jauna, ta Aijuntamentuco bere lagun Jaun guztijac. ¡O Jesus maitia! sutu eguizuz bada Jaun oncen biotzac eta beste cristiñau guztijenac, ceure biotz sagradua gana; eta emon eguiguzu ceure gracia secula otzitu ez daquiguzan.

Icusirie Arcipreste D. Francisco de Ormacheoitia Jaunac Aijuntamentuco Jauneen ta erri guztijaren aldetic aín gauza consolagarrija, igon eban pulpitu santura eta bere beguijac malcos beterie cituzala artu eban póz andijagaz, esan euscun guzlijoi. Neure feligres maitiac: ez daquit cer igaroten jatan neure biotzian, icusirie gaur zubez eguiñ dozuena Templu santu onetan. Dagoz bada gauza batzuc bateri pozez negar eraguiten deutzeenac: eta..... ¿celan negar egiñgo ezdot cristiñau maitiac icusirie Aijuntamentuco Jaunac aurretic diriala ceuben biotzac consagrau edo alcartuten Jesusen biotz sagraduagaz? ¿Egon leiteque gauza poz atseguíñ andijaucoric Jesucristo Jaunaren ministro batentzat? ¡O! erri guztijac eguiñgo balebe zubez Templu santu onetan puntuon eguiñ dozuena, beste gauza bat izango litzate cristiñau crijeenzat. Jarraitu eguijozue bada artu dozuen bidiari, eta orrela eguiten badozue, Jesus onac emongo deusue eguneen baten meresidu dozuen sarija: cein dan ceruco gloria. Au izan zan guichi gora bera Arcipreste



Jaunac pulpitu santutic esan euscuna, eta onegaz amaitu cirian Triduco funciñoiac.

## XXVIII.

### **Napoleon leleengua, ta Comuniño santua.**

Ez daucat goguan oraiñ esaten nuana iracurri edo entzun banaban, eta zan onelan. Egun baten emon eutseen jan bat Frantzijaco Emperadore Napoleon leleenguac bere Jauregui edo Palacijuan, General eta Tropaco Nagosi batzui: eta ija janen azquenian egozarian, eguiñ eutsan General batec itaun bat Emperadore Jaunari esaten eutsela; ¡Jauna! ¿Cein izan da berroren bici guztijan izan daben egun andijena? Generalac uste eban entzutia Emperadoriaren agotic, araco Garai edo Batalla andijen bat irabaci eban egunen bat; baña..... urrun egoan Generala Emperadoriaren pentsamentagaz: bada onec erantzun eutsan Generalari, guisa onetan: nie neure bici guztijan izan dodan egun andijena izan dá leleengoco Comuniño santua eguiñ neban eguna. Erantzuera onegaz gueratu zan Generala, mutututa leguez.

Cristiñau Guernicarrac: orra bada cer erant-

zun eutsan Napoleon leleenguac Generalari: orre-  
gaitic bada, itandueo balcusquigu guri bere ifios-  
co demporan inoe cein izan dan gueure bici  
guztijan izan dogun egun andijena, erantzun  
deijogun otsarie bage Frantzijaco Emperado-  
riac leguez; leleengo Comuniño santua eguiñ  
guenduan eguna; eta güc esan guiñai oraiñ; bi-  
garrena, gueure biotzac Jesusen biotz sagraduari  
consagrau edo alcartu gueuntzazan eguna.

Oraiñ bada; aifñ mesede asco eguiñ deuseun  
ezquero gueure Jesus onac biar bada, meresidu  
ez dogula, emoten nua esquerrac Jaun oneri  
Guernicar guztijoen orde; eta uste dot ez dozue-  
la au artungo chartzat.

Neure Jesucristo Jauna: aifñ mesede asco edo  
andija eguiuscuzun ezquero 1885 garren urtian  
colera icaragarrija ganic librauagaz, emoten deut-  
sudaz millaz esquerrac Guerniqueco seme alaba  
guztijen orde; eta erregututen deusut Jauna  
enon daiguzula aurrerantzian ceure gracia,  
gueijago iraundu ez zaiguzan; modu orretan li-  
brau gaizuzan oraiñ arte librau gozuzan leguez,  
peste guztijetarie.

¡O Jesus amorosua! oraiñ arte eguiñ badogu  
aleguiñ guztija, ceure legue santia biar dan le-  
guez gordetaco, aurrerantzian ceure graciajagaz  
ez dogu guichijago eguiño. ¡Bai Guernicar cris-  
tiñauac! ondren daigun gueure Jesus maitia biar  
dan leguez; eta orrela eguiten badogu, uste dot  
librauco gaituzala oraiñ arte leguez colera eta

beste peste guztijetaric. Azquenez; ez gaitian aztu Birgiña Marijagaz, eta bere senar san José gloriosuagaz: bada badaquigu celango escubido edo altasun andija danqueen oneec ceruan. Eta... zeelan euqui ez izanic bata Jaungoicoaren Ama eta bestia Aita ordia? ¡O cristiñauac! izan deijogūen bada bijai amodijo andija, ta ondreu daigun gueure Ama Birgiña egunaro errezeuagaz errosarijo santua: bada errosarijo santua da cristiñauentzat arma iñdarzua, arerijuac goitu edo bencietaco. Orregaitie bada, maita badogu Birgiña Marija, ta ondretan badogu biar dan leguez, ez euqui bildurric; cergaitie berac lagundueo deusculaco gueure eztutasun eta premiña guztijetan: baña ez bacarric oraiñ, baita bere eriotzaco orduan.

## XXIX.

### Jaungoicoaren misericordija, andija da.

Sarri entzun dogu eta entzuten dogu esaten cristiñau ascoren agotic, Jaungoicoaren misericordija andija dala guizona ganaco. Egui andija da; eta eracutsi áu emon eutseen guizonai Calbarijoco mendijan, Judegu deungac curutzian josi-

ric imifñi eben egumian. ¡Bai cristiñau maitial orduan uste izan ceiquian amaitu biar ebeela Jesu-cristo Jaun eta Jaungoicoaren misericordija guztijac guizona ganaco, guizon gaistuac igaro eraguiñ eutseezan neque eta tormentu icaragarrijac gaitic ta azquenez guizon deunga bat izan bazan leguez emon eutseen eriotza lotsagarritzena gaitic: baña etzan jazo olango gauzaric gueure Jesus onagaz; cergaitic ija ill biar eban orduan curutze santian, jazo cituzan bere beguijac cerura esaten eutsala bere Aita beticoari; ¡Aital parcatu eguijozue nire arerijuai; bada ez daquiye cérguiten dabeen. Cristiñau eta cristiñau etzareneac; ¿eldu leiteque Jaungoico baten misericordija gueijagora guizona ganaco guizon deungac berari eguiñ eutseezan gauzac eguiñ da guero? Ez. Ibilli gaitian bada zuzen.

Jaungoicoac beti cuqui dau eta enquico dau misericordija pecatarijacaz: baña... ez daiguzan ichi azqueneraco erreligiñoco gauzac esanagaz Jaungoicoaren misericordija andija dala guizona ganaco.

Dagoz guizonac cristiñauac diriala diñuenac, esaten dabeenac; á azqueneco orduan biurtuco gara guztiz Jaungoicoa-gana, ta orduan emongo deutsaguz berari gueure contu guztijac. Ezdot esango guisa orretan berba eguiten dabeen cristiñau guztijac gueratuco diriala urrian beifñ pascuagaz camplicu бага; baña... ¿celanguac izango dira olango cristiñauen Confesiñoiac? Erechi ba-

ten ez onac; bestelan ez leuquee esango azque-  
neco orduan biurtuco diriala guztiz Jaungoicoa  
gana. ¡Cristiñauac! ¿Ez da áu ichutasun edo erra-  
euntza andijan bici izatia? Azqueneco orduan  
biurtuco gara Jaungoicoa gana: ondo dago; ba-  
ña... ¿badaquigu gúc nos illgo garian, edo cer  
modutaco eriotzia izango dogun? ¿Badaquigu  
benturaz Jaungoicoac azqueneco orduan ezetara-  
co lecuric emongo badeuscu? ¿Cer bada? ¿Gueu-  
re escuetan edo patriqueran daucagu eriotzia  
gueuc nos gura edo nai dogun orduan Jaungoi-  
coari gueure contuac emoteco? ¡A cristiñauac! ez  
gaitian ibilli nertu gurarie, Jaungoicoaren neu-  
rija. Jaungoicoac dirauzeu egon gaitiala beragaz  
ondo, dempora guztijetan: onegaz esan gura  
deuscu, eriotziac artungo gaituzala usteric gui-  
chijen dogunian; eta ordu atan ondo bagauz be-  
ragaz, ondo izango gariala; ta charto bagauz,  
charto izango gariala. Pentsau daigun bada ondo  
aimbeste juacun gauza baten gañian, cein izango  
dan Eternidade guztiraco.

¡Cristiñauac! beguira bada nora guifio eldu  
zan Jaungoicoaren misericordija guizona ganaco,  
esan da daucadan leguez: orregaitic esan dot  
Jaungoicoa misericordiosua dala gugaz, eta sarri  
ascotan meresidu ez dogula.

Baña... ¿badaquigu Jaungoicoac nos artian  
euquico daben misericordija gugaz? ¿Izango alda  
unat urtian, berroguei edo larogueijan? Eta or-  
du atan eriotziac artuten bagaituz pecatuan, eta

Jaungoicoac gueure erruz emoten ezpadeuseu le-  
curic gueure pecatuac autortu edo Confecetaco  
Confesore Jaunari, ¿er izango da gugaz? ¡O cris-  
tiñauac! egon gaitian jaquien gañera; bada  
Jaungoicoaren misericordija andija bada guizona  
ganaco, bardiñ edo andijaua izango dala bere  
justicija: misericordija izango dugu mundu one-  
tan bici garian arte; edo obeto esan da, berac nai  
daben arte: eta bere justicija... ¿nos arte izango  
dogu? ¡Cristiñauac! poztu ta icaratu gaitian emen.  
Badaquigu ill biar doguna, eta Jaungoicoaren  
epai edo sentencija Eternidade guztiraco izango  
doguna: orregaitic bada, illten bagara sacramen-  
tu santuac debociñoz eta gueure pecatuen damu  
andijagaz artun da, salbeuco gara; onegaz, poztu  
biar gara. Bafiñ illten bagara sacramentu santu  
onec desprecijau edo jaramonic eurari eguiñ  
gura ezda, gueure erruz condenauco gara: eta  
onegaz icaratu biar gara. Beguira bada cer egui-  
ten dogun.

Gauza fedecua dá esan dodana, batbere duda-  
ric бага; bada orrela eracusten deuseu Jesucris-  
toren eleissa santiac Aita santu Erromacuaren  
bitartez.

Orañi bada; izanic eguija esan dodana, ez da  
quit celan dagozan guizonac diñuenac: jazquene-  
co arduan Confesauta guero, emon deusaguz  
Jaungoicoari gueure contuac! ¿Ezda negargarris-  
co gauzia olango gauzac entzutia? Eta guero  
esango dabe guizon orreec cristiñauac diriala.

Orregoitic bada, cristinauac bazaree, ichi eguijoe zue pentsamentu edo esate orreri Jaungoicoa gueijago iraundu baga; eta egon gaitian ondo prestauta edo gueure arimac garbi doguzala, Jesucristo Jaunaren Tribunal santura aguertu biar dogun orduraco: beda ez daquigu nos izango dan.

Neure iracurla eñzuac: izanic bada Jaungoicoa gugaz aifñ erruquiorra, edo misericordiasua? ¿celan cristinau asco aifñ sarri pecatuan jausten dira Jesucristo Jaunaren ministruen esanari jaramonic eguifñ baga? Gauza bat jatort emen gogora; debecatu edo galarosoco baleusquigu errico Alcate Jaunac Erregue Jaunaren aguiñduz aifñ lecutera juaten gueure bicitziaren beian lecu atara juatia izango lichatelaco Jaungoicoaren ofentsan eta orregaitic gueure arimeen caltian, ¿cer eguiñgo gueunque? Uste dot esango ceunqueela neugas, ez juan lecu atara; eta ori.... ¿cergaitic? Cergaitic lenago dalaco bicija. Beguira bada celan emongo gueunquian eracutsija, erioztziari edo illtiari deutsagun bildurra.

Diñot nic oraiñ; ¿bildur gueijago deutsagu Erregue Jaunaren aguiñduz errico Alcate Jaunaren aguiñduari, Jaungoicoaren aguiñduz bere ministro Jauneen aguiñduari baño? Esan gura dot; ¿bildur gueijago deutsagu oraiñ illtiari biar bada Sacerdote Jaunaren esana eguifñ ezagaitic betico condenetiarria baño? ¿Cer dirauzeue Sacerdote Jaunac? Alde eguifñ daigula gal-bidectaric;

au da; pecaturaco bideetarie. ¡Cristiñau maitiael obediduten badeutsagu bada Erregue Jaunaren aguiñduari, (obedidu biar jacan moduan gueure arimeen caitian ezpada) ¿ez deutsagu obediduco Jaungoicoarenari? Bafia emen esango dau ondiño bat edo bestee; ori guztijori orrela izango da; bafia Jaungoicoaren misericordija andija da guizona ganaco. Esan dot, ori eguija dala; bafia ez daquigu gúe nos artian izango dogun misericordija ori: orregaitie egon biar gara beti gueure arimac garbi doguzala Jesucristo Jaunaren gorputz sagradua sarri artun da, Confesiño onaen bitartez. Cristiñauac; onelan eguiten badogu, ez daigun euqui billdurric; gueuria da cerua.

### XXX.

**Fedeco gauzac.**  
**¿Jesucristo Jaungoicoa da?**  
**icusi daigun.**

Esan da daucat liburuchu onetan, celan Jaungoicoac aguiñdu entsan munduari Erredentore bat Adanee eta Ebac Paradisuan eguieben pectua gaitie: eta celan Erredentore áu aguertu edo etorri zan mundura demporia bete zanian, gura arimac salbetaco.



Erredentore áu izan zan Jesucristo Jauna, Aita beticoaren seme bacarra, ceñec emon eban bere Jaungoicotasunaren eracutsija guizon ascoren aurrian, eguiñ cituzan gauza mirarigarrija-  
caz: áu ecin leique ucatu.

Guizon fede bacuac: izanic eguija esan dodana (alperrie izango dozue ucatu gura izatia) ¿celan azartuten zaree ucatuten edo dudan imiñten Jesucristoren Jaungoicotasuna izanic ain gauza arquijsa? Bada... ¿certzue gauza eguiñ biar cituzan zubez beragan Jaungoicotazuna icusi edo sinistuteco? ¿Izan biar eben benturaz araco gauza mirarigarrija millagroen izenagaz ezagututen doguzanac, eta guizon utsac ecin eguiñ leiquezanac? Ondo dago.

Eguiñ daigun contu cerutic jatsi dala lurrera aiñgueru bat guizonaren Irudijan Jaungoicoaren aguiñduz, eta dirautsuela onec. ¡Guizonac! salben gura badazue ceuben arimac, sinistu biar dozue Jesucristogan Jaungoicotasuna Aita santu Erromacuac eracusten deutsuen moduan: esan eguidazue guizon fede bacuac; ¿cer esango ceuzquijue, edo cer erantzungo ceuzquijue oneri? Ez daquit: bañia izango lichate benturaz zubez erantzutia modu onetan; ondo bada: zúe dirazuezu, cerutic, jatsi zariala lurrera emon deusecuzun barrijagaz Jaungoicoaren aguiñduz; bañia gúe zuri sinistuteco ori, eguiñ biar dozuz gueure aurrian eta Jaungoicoaren izenian, araco gauza mirarigarrija guizon utsac ecin eguiñ leiquezan lan-

guac; ondo dago: eta eguiten badodaz zuben aurrian ceubec diñozuen moduan gauza mirarigarriac Jaungoicoaren izenian, ¿sinistuco dozue Jesucristo Jaunagan Jaungoicotasuna? Bai; sinistuco dogu fede guztijagaz. Onelan erantzun biarce ceuzquijue, dalaco guizonari errazoiac dirautsana.

## Millagruac.

Imiñi daigun oraiñ, cerutic lurrera jatsi dan aifigueruac guizonaren irudijan dirautsuela; ecarri-dazue ill barri bat edo oraiñ lau egun ill zan bat; (1) dacarzue, ta imiñten dozue bere aurrian: icusiric onec illda dagoala, dirautso; Jaungoicoaren izenian jagui zaitez, ta ibilli zaitez; eta illda eguana jaguiten dá biciric. Guero dirautsue; ecarri dazue oraiñ jaiotzeratic ichua dan bat, baita bere mutu bat, eta cirquiñie eguiñ ecin da urte ascotan oian dagoan bat; dacarquez, ta imiñten dozuez bere aurrian: icusiric berac escatu dituzan languac diriala, dirautso ichuari; Jaungoicoaren izenian, zabaldu eguizuz beguijac; zabalduten dituz eta bertatic jatorce bistia edo arguitasuna. Guero dirautso mutuari; Jaungoicoaren izenian, asi zaitez berbeetan; ta ordurarte mutua izan zana, beriala asten da berbeetan. Azquenez; cirquiñie eguiñ ecin da aimbeste urtian oian dagoana-

(1) Esate baleraco Lazaro.

ri, dirautso; Jaungoicoaren izenian, jagui zaitetz oguetie ta ibilli zaitetz; jaguiten da eta dabill onen gañian guztiz osatuta.

Guizon fede bacuac: ¿cer derichezue esan dodanari? Emen esango dozue benturaz; baña... nor dá guizonaren irudico aiñgueru ori? Au da Jesucristo Jaunaren irudi bat; eta esan dodazan millagruac eguiñ cituzan Jesucristo Jaunac guizon ascoren aurrian, berac eguiñ al-izan cituzalaco: eta orregaitie sinistu eben guizon areec fede bicijagaz, bere Jaungoicotasunagan.

¡O guizon ichuac! gomutau eguizue puscabat, esan dodazan gauzeen gañian; eta ona arte esan dodanac Jesucristoren Jaungoicotasunan gañian eguiten ezpadeutsue iñdarric, guazan beste gauza batera; au da; len esan da daucadanara; bada ondo da gauza onac gogoratutia.

¿Celan izan zan bada Jesucristoren Apostolu eta Ebangelista santuac, Jaungoico eguijazco baccar baten sinisqueria euquenac, ta ezetan bere euren Aita Jaungoico maitia iraundu gura éz ebenac Jesucristo Jaungoicotzat artzia? ¿Celan izango zan? Icusi cituezalaco berac eguiñ cituzan millagro mirarigarriac. Guizon fede bacuac; ¿gueltzeen jatzue ondiño dudarie Jesucristoren Jaungoicotasunan gañian? Orrela balitz esango neque ecin eguiñ leiquela zubecaz gauza onic. Baña artu daigun pacientcija puscabat, eta berba eguiñ daigun cerbait gueijago gauza onen gañian, dalaco guztiz preminacua.

XXXI.

**Fedia.**

Guizonac euqui biar dau fedeia, Jaungoicoaren eracutsijetan: eta Jaungoicoac emon deusecun leguez eracutsija bere Igarla santuen bitartez Jesucristo dala bere seme bacarra eta munduco Salbaguillia, sinistu biar dogu fede guztijagaz gueure Salbaguilliaren Jaungoicotasunagan. Orregaitic bada, Jesucristo gueure Jaunari Jaungoicotasuna ucatutiae esan gura dau, mundu onetan ebillenian guizon utsa izan zala, eta orregaitic orain bere bardiñ dala. Baña diñot nie; guizon utsa izan bazan, ¿celan eguiñgo cituzan eguiñ cituzan millagro mirarigarrijac? Jaquiñ eguizue bada, millagruac Jaungoicoac bacarric eguiñ leiquezala, eta ez bestec. Beste gauza bat; Jesucristo Jaungoicoa ezpada, ¿celan Jaungoicoac laquetu edo consentidu dau, eta consentiduten dau berreun eta larogueta-amar milloa iñguru arimac bere legue santiaren barruan bici dirianac emon deijuen oneri (Jesucristori) bacarric berari Jaungoico moduan emon biar jacan adoraciñoia? ;O guizon ichuac! oquer pentsau edo gomutetan dozuez Jaungoicoaren gauzac.

Dempora guztijetan aguertu dira munduan,

apostolu eta Profeta falsuac; bafia Jaungoicoac beti aguertu dituz guizon oncec deunga moduan, bere Igarla santu eta beste santuen bitartez. Orañi bada: ¿jazo zan Jesucristo Jaunugaz olango gauzaric? Esan gura dot; ¿aguertu eban Jaungoicoac Jesucristo gueure Jauna munduan prediquetan ebillenian Apostolu edo Profeta falso moduan? Ez: guero Jesucristo Jaungoicoa da; eta ori ¿cergaitic? Eguñ cituzan millagruac gaitic.

### Jesucristo iracasten guizonai.

Jesucristo jatsi zan cerutic lurrera, demporia bete zanian: eta ogueta-amar urtera eldu zanian, aguertu zan munduan esaten ebala. Neu naz Mesias Jaungoicoaren semia, neure Aita beticuac munduari aguiñdu eutsan Salbaguillia; eta asi zan prediquetan guizonai ordurarte entzun etzirian doctriñac, eta guizonac jarraituten eutscen mirariz beteric entzuteco bere doctriñac.

Baña etzan áu ondiño naicua bere Jaungoicotasunagan sinistuteco. Bada ¿cer eguiñ biar eban guizon areec bere Jaungoicotasunagan sinistuteco? Millagruac. Esan da daucat celan eguiñ cituzan eta celan orreiszegaitic sinistu eben bere Jaungoicotasunagan. ¡O! eta dagoz ondiño guizonac fedeco gauza andijena sinistu gura ez da-

beenac. Baña ez dago emen euren pecatu guztija.

Jesucristori Jaungoicolasuna quenduagaz, quendu gura deutsee bere Ama Birgiña Marijari Jaungoicoaren Amatasuna. ¡O gueure Ama maítia! ¿Cer dirauzczu emen? Bada ¿etzenduzan euqui Jaungoicoac anqueratuta bere Ama izateco cerua ta lurra eguiñ baño lenagotic? Eta demporia bete zanian, ¿etzan jaijo ceu ganic bere seme bacarra cein dan Jesucristo gueure Jaun eta Jaungoicoa? ¡Bai Ama laztanal! ¿Celan dagoz bada guizonac Jaungoicoaren Amatasuna ucatu gura deutsuenac? ¡O! orruqitu zaitez euracaz.

Gauza bat orain; imiñi daigñn ichu triste bateg diñuala, eguzquijac ez dabela arguitasunic emoten; ¿orregaitic ichico deutso eguzquijac arguitasuna emotiari? Ez; orregaitic bada; ¿cer baliño deutsee erracuntzaco ichutasunian bici dirian guizonai esanarren Jesucristo Jauna ez dala Jaungoicoa éz Birgiña Marija Jaungoicoaren Ama? ¿Orregaitic ichico deutso Jesucristo Jaunac Jaungoicoa izatiari eta Birgiña Marijac Jaungoicoaren Ama izatiari? ¡O guizon fedebacua! secula bere éz ori. Azquenez; Jaungoicoac nai eban orrela izatía, ta orrela eguieban; ta amaituzan guztija.

Esan dot guizonac euqui biar dabela fedia Jaungoicoaren eracutsijetan, jausi ez deitian bere arimiaren contraco erracuntzeetan.

Cristiñauac: ¿badaquize celan dabillen guizon fede bacua? Guizon fede bacua dabill cein da

ichasoan bere lecura juan biar daben ontzi bat bidia galduta dabillen moduan: bada ez daqui onec nundie nora dabillen, eta orregaitie dabill biar bada galtzeeco arriscu andijan. Au icusirie, ¿eer eguiten dau ontzico Capitan edo Pilotuac? Eguiten ditu aleguiñ guztijac bide zucena topetaco; eta bitarte onetan icusten badau beste ontzijan bat igaroten bere albotie, deituten deuto ontzi ataco Capitanari eta dirautso celan dabillen bidia galduta ta eguiñ deijola mesede bide zucenan imiñtia. Beriala imiñten dau onec, escatu deutsan bidian; ceñeri bestiae emoten deutzaz esquerrac, ta elduten da Jaungoicoaren gracijagaz berac desietan daben lecura.

### **¿Cein da bada azquenez eldu biar garian lecura?**

¡Guizon fede bacua! icusi dozue ichasoan bidia galduta dabillen ontzico Capitanac celango aleguiñac eguiten dituzan bide zucena topetaco, berac desietan daben lecura elduteco. Beste orren beste eguiñ biar dozue zubez federie ezagaitie ceruco bidia galduta zabilteenoc.

Jaquiñ eguzie guison fede bacua, ceruco bidia galduta da billela; orregaitie bada, eguiñ biar dozue aleguiñ guztija esan dodan ontzico Capita-

nac leguez topetaco ceubec (baita beste guztijoc) eguneen baten eldu biar zareen edo eldu biar ceunqueen lecuu, cein dan cerua: eta bitarte orretan icusten badozue igaroten ceuben albotic Jesucristo Jaunaren ministro Jauneeen bat, deitu eguijozue edo zoazee bera gana ta esan eguijozue celan ezabiltzeen ceruco bidia galduta, ta eguiñ deizuela mesede bide zucenian imifitia: ori icusirie artungo zaituez Sacerdote Jaunac amodijoz beteric, eta eracutsico deutsue beriala ceruco bidia.

## Amaitu dodan esa-aldijaren irudi bat.

### CRISTOBAL COLON, TA AMERIQUEC.

Cristobal Colon mundura etorri baño aurrerauco eta bere demporaco guizon jaquitun ascoc, ez eben sinistuten beste munduric eguanic, ezagututen zana baño: au da; ez-eben uste mundu onec euquizanic, ezagututen cirian errijan baño. Baña.... aguertu zan Colon cristiñau andija (1) mundura, beguiratu eutsan demporiagaz alde guztijetara oneri, ta esan eban; Jaunac: ezda zubece uste dozuen moduan. Mundu onec daucaz ichasoaren beste aldetic errijac dudaric бага,

(1) Cristobal Colon izan zan, Aita san Francisco-Asiscoren irugarren ordenacua.



ceinchubec aguertuco ditudazan eguneen baten Jaungoicoaren gracijagaz. Barri onegaz gueratu cirian guizon jaquitun asco icaratuta leguez esaten ebela; ecin izan leiteque ori; ecin sinistu leiteque ori. Baña ez uste izan jaquitun Juan areon sinistu gura eza fede charragas izan zala; bada uste eben Colonen pentsamentua ametsetaco gauza bat zala.

Egozan beste guizon batzue Coloneri barre ta burla eguiten eutseenac, baita bere zorotzat artuten ebeenac: baña Colonec eucan leguez esaten dan moduan biotz andija baita bere fede andija, guztija eruan eban pacientzija andijagaz.

¡O cristinauac! cer gauza andija dan fedia. Colonec icusten cituzan gauzacaz esan ceiquian ichi biar eutseela mundu barrija aguertuteco pentsamentu guztijai, baña ez-eban orregaitie galdu icharopen edo esperantzia Jaungoicoac lagundaco eutsana bere desiuu aurrera eruateco, eta orrela jazo zan.

Agostuaren iruan 1.482 gartenian eguifñ zan Colon ichassora Palosen beste Ontzi bijan laguntasunian. Espafiaco Erreguifñaren (1) laguntasun edo emon eutsazan socorruacaz, eta juan zan Jaungoicoaren gracijagaz ta fedez beterie mundu barrijaren billa, ta aguertu eban mundu barrija; eta aguertu ebanian mundu barrija, jarri zan ontzico lagun guztijacaz belanico, eta cantau eben Tedeuna Jaungoicoari es-

(1) Isabel Catoliquia esaten eutseena.

querrac emoteco. ¡O Colon cristiñau benetaeual Jaungoicoac euqui cenduzan zú aututa mundu barrija aguertuteco; ceñetara eruban cenduban Jesucristo Jaunaren Ebangelijo santua ceñegaz imini cenduzan ango guizon eta emacume tristiae ceruco bidian. Eta.... ¿eer jazo zan guero? ¿Cer jazoco zan? Coloneri barre ta burla eguiten eutseenac gueratu cirian esaten dan leguez agua zabalic eta curutziae eguiten esanaz; ¡Jesus! ¿Noc esango eban? Beguira bada celan dirian gauzac.

Gauza bat arguitu biar dot oraiñ. Cristobal Coloneri bere pentsamentua sinistu ez eutzeen guizonac, etzirian orregaitie pecatuan jausi; cer-gaitie etzalaco á fedeco gauzia: baña zubez Jesucristoren Jaungoicotasuna sinistu gura éz dozuenoc, aurquituten zaree beste lecu baten. Jesucristoren Jaungoicotasuna da, fedeco gauza andijenaa eta zubez ucatuten deutsaluen leguez Jaungoicotasun áu, saltetan dozue fedeco gauza andijenian; eta orregaitie zagozee pecatu mortal andijenian. ¡O guizon ichua! Jesucristoren bost zauri edo llaga sagraduac gaitie; ez zaiteze olguetan ibilli. ¿Ez daquizue ill biar dozueña? Ecin ciñaije ucatu: eta illda guero ¿ez daquizue Jesucristo Jaunaren aurrian aguertu biar dozueña? Dudarie baga: eta eriotziac artuten bazaitue modu orretan, ¿eer esango deutsaluzue Jaun oneri icusi daizuenian oraiñ ucatuten deutsaluen Jaungoicotasunagaz? ¿Izango alda benturaz zubez esatia ¡Jauna! guri munduac jaquituntzat euque-

zan guizonac esaten euscuen zukan Jaungoicotasuna sinistutia zoraquerija bat zala eta orregaitie etzenduela sinistu gura izan? Ez daquit cer beste gauzaric esan al-izango deutzazuen. Baña Jesucristo Jaunac erantzungo deutsue, (entzuten badeutsue) esaten deutsuefa; eta.... ¿cer esaten eutsuen nire Bicarijuae lurrian, (Aita santu Erromacua) Obispo, ta beste nire ministro guztijac? Ez jaramonic eguiteco guizon deungue areen esanari. Esaten eutsuen celan bein baño gneijagotan emon neban neure Jaungoicotasunan eracutsija guizon ascoren aurrian eguin nituzan millagruacaz. Esaten eutsuen ceimbat neque eta tormentu icaragarri igaro nituzan, ta azquenez celango eriotza gogorra artu neban curutzian josiric zuben arimac salbetia gaitie. Au guztijau eta gucijago esaten eutsuen ceuben eneraco. Eta.... ¿cer eguiten ceuntseen nire Bicarijuaren ta beste ministro guztijen esanari? Barre ta burra; eta jarraitu ceuntseen nire arerijuen esanari. Esan gura dau cé amodijo gneijago ceuntseela nire arerijuai, niri ceusteen baño. Zozze bada orain curac gana esango deutsue, ta botaco zaituez secula betico infernura. Beguira bada icharoten deutsuen azquenac, eriotziac artuten bazaitue modu orretan. ¡O Jesus laztanal ez deitela jazo olango gauzaric.

---

## Amajia.

Guizon fede bacuac: ¿ez zaitue icaratuten esan dodanac? Ala ¿uste dozue goijan esan dodana neuc asmau dodan gauzan bat dala? Ez uste izan olango gauzaric; cergaitic esan dodan guztija Jesucristo Jaunaren Jaungoicotasunan gafiian da, gauza fedecua; bada áu da eracusten deuscuna bere eleissa santiac, eta nie dirautsuet berac iracatsita. Orregaitic bada, aifichat artu biar dozuez esan dodazan gauzac; ez neuc esan dodazalaco, ezpada Jesucristo Jaunac esan da daucazalaco.

Asi zaiteze bada beragan (Jesucristogan) Jaungoicotasuna sinistu guraric, ta sinistuco dozue; áu da; escatuten badeutsazue berari edo bere Ama Birginiá Marijari, orretaraco biar dan gracia.

¡Cristifianuac! gauza bat esan biar deutsuet azquenez ceñen gafiian euqui biar dozuen ardura andija, jausi ez zaitetzen ceuben arimeen contra-co erracuntzan baten. Uste dot guztijoc daquizuela ceimbat biar eguiten daben Diabruac guizon ascoren bitortez, arimac galdu edo beragan-duteco. Beguira bada cer diñuen Erejiac, cristifianuac engañetaco.

Erejiac diñue naicua dala arimac salbetaco,

Jesucristogan fede bicijagaz sinustutia: baña ori da erracuntza andijan bici izatia. Eguija da Jesucristogan fede bicijagaz sinistu biar doguna gueure arimac salbeu gura badoguz; baña onez gafierra eguiñ biar doguz pecatu mortalen beian bere eleissa santia aguiñduten deuscuzan gauza guztijac: Eta Erejiac sinistu gura éz, edo eguiñ gura ez ditubezan leguez aguiñdu onecc, ecin salbeu leitequez euren arimac: au da Jesucristo Jaunaren esana. Orregaitic dirautseet Erejiai (eta mundu guztijari) salbeu nai badoguz gueure arimac, premiñaz izan biar gariala Jesucristoren seme umillac; eguiñic beguijac iehi ta burua ma curtuta, bere eleissaco ministro Jaunac dirauz euen guztija: (dicriñaco gauzeetan) modu orretan eldu gaitian eguneen baten, gucure Jesus onuren beso ederretara. Alan izan dedilla.

## XXXII.

### Azquena.

#### AMAI OSTIAN.

Neure iracurla maitiac: orra bada beterie Jaungoicoari esquerrac, nire gurari guztija. Beti izan

da nire desiua escribitzeco liburuchu bat gueure eusquera ederrian Jesucristo Jaunaren ondra ta alabantzan, eta projimoaren onian. Ez dot esan gura onegaz ez dagozala lendie escribiduta liburu ederrac gueure eusquera maitian, gueure erreligiño santiaren gafian: bafia esan leique liburuchu onen asieran diñodan leguez, aztuta bici diriala euracaz euscaldun gueijenac. Orregaitie gura neuquez nic sutu edo biztu euscaldun guztijen biotzac, eusqueria ganaco amodijuan.

Euscaldunac: galduten bada eusqueria gure artian, ez-daquit cer izango dan gugaz.

Ondreu daiguzan bada bacoçac noberen berbeeta moduan, Jaungoicoa, bere Ama Birgiña Marija, San José gloriosua, eta ceruco beste santu ta purgatorijeco arima guztijac.

### Erregua Jesusi.

¡Neure Jesus laztana! izan dedilla liburuchu áu araco arima erdi galduan da billenen bat bere doctrina erracuntzacuac gaitie bide zucenara ecarrico dabena, eta cristinau guztijen biotzac ceu ganaco amodijoz beteco dituzana. ¡O Jesus maitial áu da liburuchu onetaco lán edo biarraren saritzat escatuten deusudana.

¡O Birgiña Marijal Jaungoicoaren eta gueure Ama maitia. Erruquitu zaitex gugaz, orain eta criotzaco orduan. Alan izan dedilla.



JESUCRISTO JAUNAREN PASIÑO  
SANTUCO BERSUAC,

---

1.

Jesucristori quendu ezquero.  
Pecatubaeaz bicitza  
Baldin ezpadot negar eguiten  
Arrizcua dot biotza.  
Guztijoc lagun,  
Cantatu daigun,  
Bere penazco eriotza.

2.

Munduba baño ascoz lenago  
Izenteurico eguna.  
Eldu zán nosbait an eguiteco  
Guizonaren osazuna;  
Arguia bera,  
Alde batera,  
Bestetic égum illuna.

3.

Egunben santu afal ostian,  
Bere lagun cituzala,

Jesusec iru Dicipulubai  
Berba eguifñ eutsen onela;  
Triste nago ta,  
Ló ori bota.  
Or eguizube gaubela.

4.

Gesemanico ortu santuban  
Auspez lurrian jarriric,  
Escatzen eutzan librau leijala  
Ill biar gogor ataric;  
¡Ail Jesus larriz,  
Odol-icerdiz  
Eta.... ¿Ezdot nie negarric?

5.

Icerdi otza arpeguijan ta  
Biotza nequen artian,  
Triste arima gorputza larri  
Agoniaco trancian:  
Baña alan bere,  
Egoan firme,  
Aitaren borondatian.

6.

Judegu deungac Judas laguntzat  
Arturic datoz itantzen,  
Nazarenoa derichon Jesus  
Emen eteda aurquitzen?  
Judas orduban,  
Baque moduban,



Doaco mosu emoten.

7.

¡O! ceñ-bat dira Judas leguezco  
Cristoren adisquidiac,  
Campotic laztan barrutic saldu  
Ausiric bere leguiac!  
Cristiñau falso,  
Arima gaisto,  
Pecatari saltzaillac.

8.

Erantzun eutsen Jesus maiteac  
¿Ceñ billa zatose ona?  
Ara ni emen ezda besteric  
Gura dozuben guizona;  
Etzan ni gaitic,  
Soca biarric;  
Ez eldu lagunoc gana.

9.

Escubetarie lotu izan eben  
Guztijen ascatzallia.  
Cegaitic au zán nire onian  
Jaunaren borondatia;  
Urratuteco,  
Añ-bat urteco,  
Pecatubaren catia.

10.

Icaslac euren maisuba alan

Ebeneraco icusi,  
Bacar bacarric bera ichita  
Joan cirian iguesi;  
Pedro etorren,  
Bere ondoren,  
Baña au bere urrundi.

11.

Jesus daroe Jerusalengo  
Sacerdotien aurrera,  
Iracatsijan gañian eta  
Jarraillen contu artzera.  
Anas gaistua,  
Aurrerengua,  
Asten jaco itantzera.

12.

Ezdot nic diño Jesus laztanac  
Iracatsi escutuban,  
Aguirija zán nire doctriña  
Sinagogan, ta teropluban.  
Ez niri itandu;  
Bada asco dira  
Entzun nabenac munduban.

13.

Erantzute áu entzun orduco  
Soldudu batec bertati;  
Gora darua bere besoa  
Eta dirantso Jaunari:

Icasi daizun,  
Celan erantzun,  
Ostera Pontificiari.

14.

Esan ta eguiñ emoten deutso  
Bere apergui ederrian.  
Belarrondoco andi andi bat  
Anche guztijen aurrian.  
Eta... ¿Ceruac  
Dagoz lotuac  
Au icusten dabenian?

15.

Nosco alduzuz Aita Eternua  
Oñastarrijac, ta suac,  
Ez erretaco anche berperten  
Ain escu lotsa galduac;  
Ain gueruban, éa  
Elzaita ona,  
Nun dituzubez eguac.

16.

Baldin deungaro berba eguin badet  
Cetan dagoan esaizu;  
Baña ezpadot diño Jesusec  
Ecetan bere erratu,  
¿Cegaitic, arren,  
Berba eguiñ arren,  
Onela neu joten nozu?

17.

¡O Jesus neuro biotzecua  
Iracatsi dazu niri,  
Jaquiñ daguidan celan nequetan  
Emongo dodan arpegui,  
Parcatubagaz,  
Biotz onagaz,  
Arerijo charreenari.

18.

Cerren ollarac éz eban emon  
Birritan bere soñuba,  
Nun iru bider ucatu eban  
San Pedro bere Maisuba:  
Ezda besteric;  
Galbidetarie,  
Ateraten dan pagua.

20.

Caifasec barriz itantzec deutso  
Eguñic juramentuba,  
Esaidazu bá Jesus bazaru  
Zú Mesias aguiñduba;  
Alan ezpada,  
¿Cetaco izan da,  
Engañetia munduba?

21.

Ondo equijan Jesusec nora  
Joian á autoreuntzia,

Caifas ebillen nundie billatu  
Jesus galtzeco bidia.  
Eta onela,  
Batu nai eban,  
Ill eiteco achaquiya.

22.

Alan daguzti baiets dirautso  
Aitari beguiraturic,  
Baita Caifasec bere deadar  
Soñecuae urraturic:  
Blasfemuena,  
Da onen pena,  
Guztija dago eguñic.

23.

Jaguiten dira Batzar deungarie  
Artuten dabe bidia,  
Amargurara nun Pilatosec  
Eijeucan bere echia;  
Zan Erromaco,  
Aldi ataco,  
Juduen Aguiñzaillia.

24.

Juezac diño emongo badot  
Guizon áu eriotzara,  
Ecarri lenau bide egoquijac  
Ezpadozubez ¿Cetara  
Dacardazue?  
Eroaizue,

Or Herodesen aurrera,

25.

Jaungoicoaren jaquiturija  
Dauco mundubac zorotzat,  
Agaitie diño Erregue orrec  
Jantzi soñeco zuri bat  
Bestela celan,  
Erosico zán,  
Jantzi garbija guretzat.

26.

Esaten deutse Pilotoseri  
Juduen Sacerdotiac.  
¿Uste alduzu ez doguzala  
Gue bere gueure leguiac?  
Blasfematu dau  
Eta ill biar dau,  
Olango lotsabaguiac.

27.

Onec esan dau izanic arotz  
Necatu baten semia,  
Jaungoicoaren seme dala, ta  
Judeaco Erreguia:  
Illten ezpezu,  
Etzara ez, zu,  
Cesaren adisquidia.

28.

Gura euquian Juezac Jesús

Eriotzaric atera;  
Cegaitic bere erruic eza  
Eldu zan len igartera.  
Baña Juduac,  
Ichu galduac,  
Ez etorcazan atara.

29.

Eriotza bat eguiñ da diño  
Dago Barrabas carcelan,  
¿Nor nai dozue, Nazarenoa  
Edo á librau daguidan?  
Da izecunia,  
Bat ascatzia,  
Zuen Pasco egunian.

30.

Osta agoric atera eban  
Asi cirian deadarrez,  
Librau eguizu Barrabas baña  
Jesus Nazarenoa ez.  
Orrec biar du,  
Ondo alatu,  
Ague batian dolorez.

32.

Atzera diño Pilatosec  
Baña ¿Cer orrec eguiñ du?  
Isrraelaco Erregue dala  
¿Esatia al dau erru?  
Acc deadar

Erregue Cesar  
Ori curutzera biaidu.

33.

Jaungoico altzue ceñec munduba  
Daucan ederrez jantziric,  
Nabarben gogor tunica guiño  
Soñecuac erantziric;  
Billos gorrijan.  
Egun arguijan,  
Ichi eben lotsaturic.

34.

Nun zara gata: ta nun edoijac  
Illtasuna ¿nun zara?  
¿Ez al zatoze Birginiaren  
Semia estaldutera?  
¡Al eguzquiya,  
Ceruleo arguija,  
Batu eguizu atzera.

35.

Bos milla azote, eta gueijago  
Luturic Coluna baten,  
Asi jacozan iru borrreru  
Bere espaldetan emoten.  
Ibai bat celan,  
Odola alan,  
Asi izan zan jausiten.

36.

Arrijac, eta Salbaguilliac



Bijac alcar cirudijen;  
Cegaitic etzan onen agoitic  
Ai ai bacar bat entzuten.  
Ach gogor illac,  
Golpe crubelac,  
Ditubenian artuten.

37.

Arri aguerie arifca Jauna  
Soldaduae escaturic;  
Danae joacoz adoritera  
Burlaz Erregue eguifnic  
Bere coroa,  
Arantzazcua,  
Buruban firme josiric.

38.

Capa gorrija soñian, eta  
Cañabera bat escuban;  
Onola Jesus tratetan eben  
Pecatarijac munduban;  
Munduba bera,  
Erositera,  
Jauna etorren orduban.

39.

Jesus onelan icusi eta  
Pilatos erruquituric,  
Ezdot dirautse nic aurquituten  
Guizon onegan erruric;  
Ill eguizue,

Nai badozue;  
Erroman ezda legueric.

40.

Aec deadar; Jauna dalaco  
Pilatos billdur bazara,  
Datorqueela gueure arimai  
Orren odola gañera;  
Ezda ardura,  
Gueure contura,  
Bialdu ori curutzera.

41.

Juez gaistoac Judego deunguen  
Esana seguitiarric, (1)  
Erabagui dau Sentenciya bat  
Ez inoc oquerragoric;  
Eta gura dau,  
Garbi gueratu,  
Jaungoicoan odoleric.

42.

Alper alperric Aguiñtzaillia  
Garbitzen dozac escubac,  
Juez artetzat ez-euc cuquico  
Secula bere mundubac.  
Loituric ago  
Baña gueijago,  
Ibaño bere Juduac.

(1) Eguitiarric; berba à Jesuite Jaun batena da; nste dot ondo egongo dála.

43.

Curutze balian mundu guztico  
Pecatuac cituzala,  
Abijadu zan Calbarijora  
Jesus lapurren artian:  
Artu curautzia,  
Au da bidia,  
Galduco gara bestelan.

44.

Salbaguillia pausu bat bere  
Emon ccific aurrera,  
Curutze astunac azpiratuta  
Ezarri eban hurrera.  
¡O! pecatuba,  
Zure pisua,  
Carga guztija zu zara.

45.

Eciñ bacarric eruan eban  
Zalaco guztiz astuna,  
Agaitic bada emoten deutse  
Lagun Cirene-tar ona:  
Ceure zorion  
Benetan Simon,  
¡Noc leucan zure eguna!

46.

Bide onetan bai-joianian  
Calbarijoco mendira,  
Seme laztana icusi nairic

Ama egoan beguira;  
An dira penac,  
An atsacabac,  
Martirijuac an diru

47.

Ama Birgiña larrituena  
Ichi eguizuz beguijac,  
Estaldu zaitez ainfbaga bere  
Asco daroa Semiac:  
Atsacabarie,  
Ta ez berbaric,  
Ichico deutsu negarrac.

48.

Biurtzen dituz Amac beguijac  
Semia icustiarren,  
Baña biotzac eruan ecifi  
Ta atzera dira biurtzen:  
Datoz agaitic,  
Beguijetatic,  
Biolzac berba eguiten.

49.

Seme arenac esaten deutso  
Baquizu, Ama maitia,  
Damu, ta damu, badozu bere  
Onelan ni icustia,  
Bestela ecifi,  
Leiteque eguiñ,  
Ceruagazco baquia.

50.

Neure Aitaren borondatian  
Ceuria beti daucazu;  
Aren esanac narua agur  
Bendecifioia ecazu.  
    Neure ordiaz,  
    Pecatarijaz,  
    Ardura izan euquizu.

51.

Amac dirautso zoaz semia  
Iltera ordu onian,  
Baña ni celan ichi nai nozu  
Olango bacartadian?  
    ¡Ai, celan bai nic,  
    Zugaz ta pocie,  
    Bicija galdu neiquian!

52.

Jesus gueuriac onelan nequez  
Eguñic bide erdija,  
Beronicaren errai samurrac  
Quendu eutsan icerdija.  
    Lan onen sari,  
    Jaunac dau ichi,  
    Zapijan bere irudija.

53

Beeroazan bere laguntzat  
Jerusalengo alabac,  
Damuen andiz beguijetatic

Uturic euren biotzac.  
Zan eurac gana,  
Biurtu Jauna,  
Eta dirautse, ¡Ai andrac!

54.

Arech ece au erreten badau  
Pecatuaren su garrac,  
¿Celan ezdituz errautz eguiñgo  
Su orrec egur igarrac?  
Ez niri negar,  
Ez dot nie biar,  
Pecatubari negarrac.

55.

Eldu eirian Calbarijora  
Egozan prest borrherruac,  
Gauza guztijen Eguilliari  
Josteco oñ ta escubac;  
Icusi leijan,  
Bigarren Adan,  
Arbola atan mundabac.

56.

Noc dituz escu ta oñ orreetan  
Burdiniagaz idigui,  
Gorroto edo amodijuac  
Odolezco lau iturri  
Ta bulerretic,  
Ate eguiñetic,  
Amodijua da aguiri.

57.

Baltzez jantziric escutetan dau  
Ceruac bere arpeguija,  
Lotsaren lotsaz guelditzen dala  
Gorrituric irarguija;  
Gau illumian,  
Egoanian,  
Goren goren eguzquija.

58.

Austen badira arrijac, celan  
Dagoz biotzac osoric,  
Curutze batian min-alaz illten  
Gueure Jesus icusiric?  
Pecatarijac,  
Gora beguijac,  
Negar iturri eguiñic,

59.

Gogotic negar eguiñgo deusut  
Jarriric ceure onetan,  
Neure Jaun ona zaitudalaco  
Imini curutze orretan,  
Ceu iraundua,  
Dancat damua,  
Gauza guztijen gañian.

60.

Izana gaitic Jesus maitia  
Neure errua andija,  
Iñdarzua da zure odola

Onee deidalá balija;  
Neure erruqui,  
Jesus zue edqui,  
Jauna misericordija.

61.

Damu dot Jauna biotz guztirie  
Zuri deungaro eguiña,  
Ez, ez gueijago nie peaturie  
Neure Jaungoico lastana;  
Lar da oquerrie,  
Eguiñac gaitie,  
Betoz negueoe nigana.

**Bici Bedi, Jesus,**  
**Misinoi santuetaco, cantac.**

**CANTARTA.**

Erdu peatarija  
Erdu eleissara,  
Jaungoicoan berbia  
Gogoz entzutera.

**CANTAC.**

1.<sup>a</sup>

Ez egon peatuban  
Ez egon luzaro;  
Damu izan ez daizun  
Alperrian guero. *Erdu etc.*



2.<sup>a</sup>

Pecatu mortalian  
Echuten bazara,  
Benturaz infernuan  
Irazarco zara. *Erdu et.*

3.<sup>a</sup>

Misiñoi santu onetan  
Biurtzen ez bazara,  
Benturaz urrengoetan  
Bicico etzara. *Erdu etc.*

**CANTARTIA**

Artu gaizuz Ama  
Seme necatuac.

**CANTAC.**

1.<sup>a</sup>

Agur dolorezco  
Ama larritua,  
Erreguiña laztan  
Erruquiz urtua. *Artu etc.*

2.<sup>a</sup>

¡O Raquel ederra  
Noquez asetua,  
Gu semiac gagoz  
Negarrez urtuac. *Artu etc.*

3.<sup>a</sup>

¡O! Ama biguna

¡Ol Erruquitua,  
Arren izan gaitez  
Ceruan sartuac. *Artu etc.*

**CANTARTIA.**

Jesus escatzen deusut  
Nic parcaciñoia,  
Lotsaz beterie nator  
Gutziz damututa.

**CANTAC.**

1.<sup>a</sup>

Bigundu cristiñaua  
Biotz gogor ori,  
Damuz beguirituaz  
Arren arimari.

2.<sup>a</sup>

¿Noiz arte biar dozu  
Egon pecatuban  
Ieusiric zaozala  
Ija infernuan?

3.<sup>a</sup>

Deiezca zuc daucazu  
Ceure Jaun maitia,  
Bere besoetara  
Laster joan zaitian.

4.<sup>a</sup>

Alperrie biei izan naz  
Pentsauric baguean,

Nun izan biar dodan  
Illten nazanian.

5.<sup>a</sup>

Neure biotz guztico  
Jesus chit maitia,  
Badaquit neu nazala  
Zure illzaillia.

6.<sup>a</sup>

Eguite deingacaz ta  
Ibilli charracaz,  
Unzez josi deutsudaz  
Oñac escubacaz.

---

## Misiñoi, Cantac.

~~~~~

1.<sup>a</sup>

Jesus artzain maitia  
Dator gaur deaurrez,  
Ardi galduban billa  
Ariñ ta negarrez.  
Damuz eta negarrez  
Nator ni zugana,  
Jesus ¡Ai! nic damu dot  
Pecatu eguiffa.

2.<sup>a</sup>

Ama batun negarrae  
Semia galtzian,

Ezdabe cer icusi  
Oneneu aldian.

3.<sup>a</sup>

Nora zoaz igüesca  
¿Esquer gaistocua?  
Arren Aita Jesusen  
Biotz naibacoa.

4.<sup>a</sup>

Zatoz pecatarija  
Bide leun garbira,  
Gura dadozu guero  
Igon glorijara.

Jesus gueure Jaun maite  
Amodijozuba,  
Damu dogu guztijoc  
Ceu ofendiduba.

1.<sup>a</sup>

Josirie icustian  
Curutze orretan ceu,  
Erruquiz ¡Ail biotza!  
¿Noc urrataraco ez deü?  
Baita beleuco bere  
Arri biurtua. *Damu etc.*

2.<sup>a</sup>

Buratic ofetara  
Gorputz eder ori,  
Zauri gordiñ eguiñie  
Dozu guztiori.

¡Ail zori gaiztoeuba  
Gure pecatubal *Damu etc.*

3.<sup>a</sup>

Oñac escu ta albon  
Dana zuleturic,  
Bizcar aldeaz azotetz  
Guztija apurturic.  
Arantza gogorracaz  
Josiric buruba. *Damu etc.*

1.<sup>a</sup>

Pecatorijoc Ama  
Birginiã zaituguz  
Ceugan gueure btotzac  
Guc imiñten doguz.  
Eguizu ceue Maria  
Gu gaitic erregu,  
Eriotzaco erduban  
Ez gaitezan galdu.

2.<sup>a</sup>

Ceure izen santubac  
Baliyo bequigu,  
Ceure biotz onian  
Ustiac gue doguz. *Eguinzu etc.*  
Bein bere inor ezda  
Ta bai Maria zu,  
Ama izan ezquero  
Doncella guelditu. *Eguinzu etc.*

**AZQUENA.**

## SALBIA.

- B. Jaungoicoac gorde zaizala Erreguiña.  
B. Erruquíz biterico Ama,  
A. Bicitza gozotazun eta esperantza gueuria  
B. Jaungoicoac gorde zaizala.  
B. Zure deiz gagoz.  
A. Ebaren ume erbestetuoc.  
B. Zugana gagoz gu cizpuruz.  
B. Sentimentuz eta negarrez.  
A. Negarrezco erri onetan.  
B. Ea bada Andria;  
B. Bitarteco gueuria.  
A. Biurtu eguizuz gugana.  
B. Ceure begui erruquítzu orrec.  
A. Erbeste au iguro eta  
B. Eracutzi eguiguzu Jesus,  
B. Ceure sabeleco frutu,  
B. Bedeincatuba,  
AA. ¡O biotz biguna!  
AA. ¡O erruquiorra!  
B. ¡O Marija Birgiña gozoad  
B. Erregutu eguizu gu gaitie  
B. Jaungoicouten Ama santia,  
AA. Meresidu daigun.  
B. Aleantzeta  
A. Jesneritoren aguiñtsarijac  
B. Amen Jesus.

## Aurqui-bidia.

ASIERA EDO BERBA AURRECOA.

|                                                                 | Or. |
|-----------------------------------------------------------------|-----|
| Ez orregaitic galdu Cristoren loguia.....                       | 8   |
| Jesueristo Jamaren erreligiño santia....                        | 9   |
| Jaungoicoac bota eban Lucifer infernura.                        | 10  |
| Jaungoicoac aguiñdu eutsan munduari<br>Erredentore bat.....     | 11  |
| Ume Jesusen jaiotzeria, Belengo portalian                       | 13  |
| Ume Jesus galdu, ta templuan topauta..                          | 15  |
| Canango boda esdo esteguae.....                                 | 21  |
| Jesus Calbarijoco bidian, ta Beronica san-<br>tia.....          | 23  |
| Jesus josiric curutzian.....                                    | 26  |
| Jesus illda curutzian.....                                      | 29  |
| Jesus ill, eta biztutu.....                                     | 31  |
| Jesueristoc igon eban ceruetara.....                            | 34  |
| Berba batzue Confesiñoian gauñian.....                          | 39  |
| Jaungoicoac eta ez bestec pareatu leiquez<br>gure pecatuae..... | 41  |
| Cristiñatuae diriala diñuen asco, ta Confe-<br>siñoia.....      | 43  |

|                                                                             | Or. |
|-----------------------------------------------------------------------------|-----|
| Ain dagoz erriligiño asco cé ez-daquigu<br>cein dan eguijazcua . . . . .    | 50  |
| Erregua Jesusi . . . . .                                                    | 54  |
| Erredentoria mundura etorri baño aurre-<br>racuac . . . . .                 | 56  |
| Ezdago erreligiño eguijazcorie, bat baño<br>besterie . . . . .              | 62  |
| Munduco Erredentoria . . . . .                                              | 64  |
| Aita santu Erromacua, Jesucristo Jauna-<br>ren eleissiarenen buru . . . . . | 66  |
| Munduac jaquituntzat daucazan guizo-<br>nac . . . . .                       | 69  |
| Erregua Jesusi bere arerijuac gaitie . . . . .                              | 71  |
| Illda guero ez dago ecer . . . . .                                          | 72  |
| Gu gara Cristiñauac . . . . .                                               | 77  |
| Guerra eguiñ biar deutsagu Jaungoicoari . . . . .                           | 85  |
| Coleria aldenduta guero . . . . .                                           | 92  |
| Napoleon lelengoa, ta Comuniño santua . . . . .                             | 100 |
| Jaungoicoaren misericordija, andijada . . . . .                             | 102 |
| Fedeco gauzac . . . . .                                                     | 107 |
| Fedia . . . . .                                                             | 111 |
| Cristobal Colon ta Ameriquec . . . . .                                      | 115 |
| Amai ostiun . . . . .                                                       | 120 |



Utsen aurqui bidia. Oja edo orrija gaitie imi-  
ñico da, or, ta errenoloia gaitie er:

| <u>OR.</u> | <u>ER.</u> | <u>DISO.</u>           | <u>ESAN BIAR DAU.</u>                                                                                    |
|------------|------------|------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 6          | 13         |                        | Baserritaar jaqui-<br>tunaren echecho Es-<br>colia esribidu eban,<br>D. Juan José de Mo-<br>guel Jatnac. |
| 16         | 13         | famijaco.              | familijaco.                                                                                              |
| 88         | 30         | nire gazte<br>ta umien | nire gazte edo umo<br>demporan etziriala<br>icusten ez entzuten<br>gazte ta umien ar-<br>tian            |
| 101        | 5          | otsarie                | lotsarie                                                                                                 |
| 115        | 7          | ezabiltzeen            | zabiltzeen                                                                                               |

---

Es propiedad.

